

**Goierritarra
interneten**

**Martin Ibarbia
Euskadiko
Filmategiko
lehendakaria**

**Zegama
Aizkorri mendi
maratoia**

Ostiraleko azoka



Giokela, Okel Garbia Muturretik Buztanera

LUIS MARI Harategia
Kale Nagusia, 15
IDIAZABAL

Oianguren Harategia
Gipuzkoa kalea, 15
ORDIZIA

Giokela, Berme Osoko Okela

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua



Giokela





BERMEA
3URTE
100.000 Km

Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. **EUROLAN 4x4**



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donsotia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Pako Zubeldia, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Patxi Telleria eta Aitor Diaz de Espada.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

*GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.*




Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria

GOIERRITARRA aldizkaria Interneten

Etorkizunean aurrera egitekotan, teknologia berrietara egokitu beharra dagoenez, GOIERRITARRA aldizkariak eman du bere urratsa. Internet sarean GOIERRITARRA aldizkaria irakur daiteke maiztzezik aurrera. GOIERRITARRA aldizkariaren edukiak atalez atal modu errazean aurkituko dira.

www.topagunea.com da web orriaren helbidea. Herri aldizkariaren eta euskara elkarten Topagunearen web orria da berrau. 'Komunikabideak' atala aukeratu eta honen barruan 'On line' aukera klikatu eta GOIERRITARRA aldizkaria aukeratu gero, bertan topatuko gaituzue, hamabostero.



'12 euro' laguntzaile kanpaina arrakastatsu aurrera

Urte hasieran GOIERRITARRA aldizkariak martxan jarri zuen laguntzaile kanpaina aurrera doa. Bide onetik joan ere. GOIERRITARRA aldizkariak pertsona bat ari da irakurleei telefonoz deitu eta egoera azaltzen. GOIERRITARRA lagundu nahi duzuenok, pertsona horri datuak eman besterik ez duzue. Une honetan, Lazkao herrian ari da dei horiek burutzen.

Guztioi ere lana errazteko dena den, zuzenena eta azkarrena, aldizkariaren bertan aurkitu duzuen txarteltxoa bete eta Ordiziako 124 posta-kutxara bidaltzea da.

Lerro hauetatik, dagoeneko laguntzaile egin zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizue GOIERRITARRA aldizkariak. Guztion artean, aurrera egingo baitu Goierriko informazioa, hamabostero, euskara hutsean eskaintzen duen aldizkariak.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

CAFek egindako tranbia Bilbon

Eusko Tren enpresaren esku dago CAFek egindako lehenengo Bilboko tranbia. 190 lagunentzako lekua du eta lau kilometroko tarte ordu laurdenean egiteko gai izango da. 25 metroko luzera du eta alde banatan launa ate izango ditu. Ingelectric Team motor elektrikoaren bidez ibiliko da tranbia. Motorra, Beasaingo Indar enpresan egindakoa da. Punta-puntako teknologiaren jabe da. Gehienez 70 kilometro orduko abiadura har dezake.

Euskara Biziberritzeko Plana

Eudelek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiekin batera euskara bultzatzeko plangintza martxan jarri zuen duela urtebete. 20 udalerritan egingo dituzte lehenengo ahaleginak, eta tartean, Beasainen. Emandako datuen arabera, beasaindarren % 56,1 da euskalduna. Planaren helburu nagusia, euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea da.

Pako Aiestaran Futbol Ligako txapeldun

Valentzia futbol taldeko prestatzaile fisikoa da Pako Aiestaran beasaindarra. Aurten, Futbol Liga irabazi dute valentziarrek.



Uribe eskualdearekin hitzarmena sinatu du Goiturrek

Ordiziako Barrenan, maiatzaren 17an sinatu zuen Goiturrek Bizkaiko Uribe eskualdearekin, turismo sustapenerako hitzarmena. Hitzarmen honen ondorioz, Uribe eskualdeko turismo informazioa Goierri izango dugu eta Goiturren bidez Gipuzkoako azoketan banatuko da. Eta alderantziz, Goierriko informazioa Uriben eta Bizkaiko azoketan banatuko dute bizkaitarrek. Aldi berean, turistak ere trukatu nahi dituzte turismoaren aldeko apustua egin duten bi eskualdeok.

Uribe eskualdeko 22 udalerrietako alkate eta zinegotziak etorri ziren Goierri ezagutu eta hitzarmena sinatzera.

Goierriko turismoari buruzko hitzaldia

Maiatzaren 29an, arratsaldeko 5etan, Goierriko Ingenieritza Eskolako Areto nagusian, Aurkene Alzua, Deustuko Unibertsitateko Katedradunak marketingari buruzko hitzaldia eskainiko du, 'Potencialidad turística del Goierri y técnicas para la fidelización del cliente' izenburupean. Irekia da hitzaldia. Bidaia agentziak, dendak, jatetxeak... guztiak daude gonbidatuak. Bertara joan nahi dutenek, 943 161823 telefono zenbakira deitu behar dute izena emateko.

 **mazda**
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**


URBITARTE
tolare
sagardotegia



*Eraman sagardoa etxera eta
dastatu nahi duzunean:*

**Sagardoa
botilan
salgai**

Tel.: **943 18 01 19**
Ergoiena Auzoa ATAUN



**Ekainaren 22ra arte
sagardoa txotxetik**

**Sagardotegiko menua eta
arraina parrilan**

Lazkao Txiki XI. bertsopaper lehiaketa

Ordiziako Argi-Berri elkarteak Lazkao Txiki XI. bertsopaper lehiaketako oinarriak kaleratu ditu aurten ere. Lehiaketa hiru mailatan banatzen da:

● **Gaztetxoan maila:** 13 urte artekoentzat (2002an 14 betetzen ez dituztenentzat). Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper bidal ditzake. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 2 eta gehienez 4 izango dira. Neurria eta doinua libreak izango dira, ez ordea gaia. Gaia 'Aitonaren argazkia du eskuetan' izango da.

● **Gazteen maila:** 14-18 urte artekoentzat (2002an gutxienez 14 urte eta gehienez 18 urte betetzen dituztenentzat). Parte hartzaile bakoitzak nahi

adina bertsopaper bidal ditzake. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira. Gaia, neurria eta doinua bezala, librea izango da, bakoitzaren aukerokoa.

● **Helduen maila:** 1983an edo aurretik jaio-takoentzat. Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper bidal ditzake. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira. Gaia, neurria eta doinua bezala, librea izango da, bakoitzaren aukerakoa.

Lanak helbide honetara bidaliko dira, uztailak 1 baino lehenago: Argi-berri Elkar-tea. (Bertsopaper Lehiaketa).

LAZKAO TXIKI



XI. BERTSOPAPER LEHIAKETA

Gipuzkoa kalea, 15. 20240 Ordizia.

Bertsoek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Lanak bidaltzerakoan originala eta lau kopia bidaliko dira. Lanak izenordez bakarrik sinatuko dira. Izenorde hori bertso sortaren barrenean jartzea hobe. Eta izenordearekin bakarrik bidaliko dira.

Izen orde horrek guztiz ezezaguna izan behar du. Beste gutun azal batetan, izenordearekin batera bidaliko dira beste xehetasun guztiak: Egilearen izenordea eta izena, adina eta beste xehetasunak, helbidea, telefonoa, e.a. (NA-Naren fotokopia bidal daiteke).

Sariak

Sari hauek jasoko dituzte, oroigarriez gain:

Gaztetxoak: 1.ak 120 euro, 2.ak 60 euro eta 3.ak 30 euro.

Gazteak: 1.ak 180 euro, 2.ak 120 euro, 3.ak 60 euro.

Helduek: 1.ak 300 euro, 2.ak 240 euro eta 3.ak 180 euro. Sari banaketa irailaren 15ean egingo da, Ordizian.

Beste informaziorik edo, behar izanez gero, telefono hauetara 943084546 edo 943084547-ra dei dezakezue.



GESTORIA Biok

Errenta

aitorpenak egiten dira

**Goierrri, 12
behea
ORDIZIA**

☎

**943 88 44 00
943 88 12 58**

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



Barandiaran

ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Sua Aralartik kalera

Hainbat komunikabideetara bidalitako idatzi batean, Aralarren egiten ari direnaz argibide publikoa eskatu nion arduradun politikoari (Nekazaritza eta Ingurugiro Diputatuari, Jon Mikel Muruari).

Honakoa adierazi nuen idatzi hartan: *"Harrigarria badirudi ere, Aralarko Parke Naturalean, eta sua egitea erabat debekatua dagoen barrutian, basozainak (guztio ordaintzen ditugunak) mendiari su ematen aritu dira! Jon Mikel Murua, Nekazaritza eta Ingurugiro Diputatua eta Aralar Parke Naturaleko Lehendakariaren agindutara hain zuzen ere. Aspaldiko urte hauetan, gehiago edo gutxiago lanean jardun eta gero, ez genuen asko pentsatzen honetara iritsiko ginenik. Zertarako Aralarren inguruan egindako ikerketak? Eta zertarako Aralar, Parke Natural izendatu?"*

*Parke Naturaleko erabile-
ra eta kudeaketa Plan Eraik-
itzailean hainbat alor ezber-
din ukitzen dira eta benetan
azpimarragarria da zenbat
alditan aipatzen den sua eg-
itea erabat debekatua dagoe-
la. Arau-hauste oso larria
Jon Mikel Muruarena".*

Enirio-Aralarko manko-
munitateak ere Diputazioaren
aurrean bere kexa azaldu
zuen, legez kanpoko erreketak
egiteagatik eta, gainera, lu-
rren jabetza duen mankomu-
nitateari baimenik eskatu ga-
be egiteagatik.

Gure eskutitzan Diputa-
zioari erantzukizunak eskatu
eta erantzuna, berriz, Aralar-
ko ganaduzaleen izenean Jo-
su Aldasorok eman dit, ko-
munikabide hoietan.

Ez naiz Aralarren etorki-
zunaren inguruan daukagun
eztabaidan luzatuko, Goierri-
ko biztanle guztiek eta Euskal
Herriko askok ezaguna dute
eta: artzain txabola guztietara
autoz iristeko egin nahi dituz-
ten 20 kilometro pistari buruz
dira gure eztabaidak. Horre-
taz guk uste duguna idatziz
bezala hitzez behin eta berriz
azaldu dugu. Artzainek, ga-
naduzaleek eta EHNE sindi-
katuak gai honetaz duten es-
kema ere ezaguna da: "gure-
kin ez bazaude gure kontra
zaude". Baina orain gainera
norbaitek erabaki du arra-
zoia indarra bere alde ez
dagoenez, berak bezala pen-
tsatzen ez duenari indarraren
arrazoiz eraso behar diola.

Mendia 'garbitzeko' as-
motan, basozainek otadi, txi-
lardegi eta sastrakei su eman
dietela eta, debekatua dagoen
ekintza kritikatu eta publiko
egin nuen Aralar Izadi Talde-
aren izenean. Eta egun gutxi-
ren bueltan, norbait horrek
nire etxera hurbildu eta he-
men nituen bi egur pilari su
eman zien. Niri eskarmentua
edo zigorra emateko asmoz,
seguruenik, ni paretik ken-
tzea lortuko ote duen.

Gure egurrei su eman zie-
na ezkutuka ibili zen eta ez
zuen bere izenik utzi, Arala-
rren egin diren suei buruz



Aralar Izadi Taldeak idatzita-
koari horrela erantzunez. Eta
hurrengo egunean komunika-
bideetan azaldu zen beste
erantzun bat, idatzia. Aralar-
ko ganaduzaleen izenean Jo-
su Aldasorok izenpetzen
duen idatziak sutan dagoen
talde baten berri ematen digu.
Aldasorok dionez, Antonio
(niregatik) demagogoa da eta
udaberrian inausketak egiten
dituena ez, nonbait.

Gure idatziak, ote, txilar
eta sastrakak erre izana sala-
tzen zuen, 1988ko Egitamuan
esaten baita sua debekatua
dagoela. Diputatuari eta
Mankomunitateari beren ar-
durak beren gain hartzea es-
katzen genien. Idatzian ez ge-
nuen ez artzainen eta ez gana-
duzaleen aipamenik egiten.
Izan ere, gu ere hauen balia-
bideen eta larrea ontzearen
aldekoak gara. Baina horreta-
rako ez dago era bakar bat.


Iazko udazkenean, inguru
berean desbrozadoraz oteak
ezabatu ziren, bidezkoa den
legez. Oraingoan zergatik ez?
Leku malkartsuagoa delako
eta makinariarik sartzerik ez

dagoelako? Ez ote da beste
biderik? Mendi eta basoak
garbitu daitezke surik eman
gabe. Kostu ekonomikoaren
ondoan kostu ekologikoa ez
al da kontutan eduki behar?
Ala hau ere demagogia egitea
da?

Inori ez daukagu esan be-
harrik, ezta ganaduzaleoi ere,
pozoindutako hitzak eta ekin-
tza mingarri eta arriskutsuak
soberan daudela. Baina gau-
zak urrunegi ari dira iristen,
eta esan egin behar. Pazien-
tiaz, patxadaz, eta arrazoi-
menez zuen jarrera defenda
dezazuen nahiko genuke, ho-
rixe eskatuko nizuke.

Guztiaren gainera, Ara-
larko lurra defendatu eta la-
rreak indartu nahi dugu, le-
hentasuna horrek du. Artzain
eta ganaduzaleok bizimodu
duinerako eskubide osoa du-
zue, baina lehenik eta behin
amalurra errespetatuz eta de-
fendatuz.

Andoni Irastorza
(Aralar Izadi Taldearen izenean)



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



Txindoki-Alkartasuna
Institutua

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

INGURUMEN KIMIKA

(1400h)
Ingurumen Teknikaria

- Kutsaduraren kontrola eta analisia
- Kudeaketa sistema integralak:
Ingurumena (**ISO14001**) kalitatea eta segurtasuna
- Tokiko Agenda21

INFORMATIKA SYSTEMEN APLIKAZIOAK

(2000h)

Ingurumen kudeaketa ziurtagiria (**ISO14001**) duen ikastexe bakarra

- Programazioa
- Sareak
- Internet
- Datu-baseak...

**Praktikak inguruko
enpresa nagusienetan**



Aurrematrikula: Ekainaren 3tik 12ra

Email: txindokizikloak@euskalnet.net

Ugartemendi, 6 20200 Beasain. **Tlf: 943 880753**

Lurra ez da gizonarena

Sealth indioen buruzagiak 1855. urtean gizon zuriari egin zion hitzaldia

Nola erosi edo saldu daiteke zerua, edo lurraren beroa? Asmo hori ezezaguna zaigu eta ezin dugu konprenitu. Ez bagara airearen freskuraren edo uraren distiraren jabe, nola erosiko duzue, bada, jaunak?

Lur honen zati bakoitza sakratua da nire herriarentzat. Pinu orratz distiratsu bakoitza, erriberetako hondar ale txikiena, baso ilunetako ihintza, eta baita intsektu bakoitzaren hotsa bera ere sakratua da nire jendearen gogoan eta bizipenetan. Zuhaitzen zainetatik doan izerdiak berekin darama larrugorrien gogoan.

Gizon zuriaren hildakoek ahaztu egiten dute beren jaioterria, izar artera paseatzera joaten direnean; aldiz, gure hildakoek ezin dute ahaztu lur maitagarri hau, larrugorriaren ama baita lurra. **Lurraren parte gara gu,** eta, aldi berean, guregan dago bera. Lore usain gozoak gure arreba dira; oreina, zaldia, arrano handia... gure anaiak dira denak. Haitz gogorak, belaze bustiak, zaldiaren eta gizonaren gorputzeko berotasuna, denok familia berekoak gara.

Washington-eko Buruzagi Zuri Handiak gure lurra erosi nahi duela jakin erazi digunean, esan digu leku bat gorduko digula eta indioa eroso biziko dela han. Gure aita izango omen da bera, eta gu haren semeak. Horregatik, aintzat hartu dugu lurra erosteko egin digun eskaintza. Eta hori ez da erraza, guretzako lur sakratua baita han.

Ibai eta erreketatik kantari datozen ur garbia arbasoen odola da indioaren gogoan. Gure lurra saltzen badizuegu, zuek ez duzue sekulan ahaztu behar sakratua dela eta zuen semei ere erakutsi behar diezue hori. Ez duzue ahaztu behar lakuetako ur gardenetan sortzen den islada bakoitzak gure jendearen gogoan eta bizitzan kontatzen duela eta uraren murmurioa gure arbasoen ahotsa dela.

Gure arreba da ibaia eta egarria asetzen digu; gure kanoak eramaten ditu eta jaten ematen die gure seme-



alabei. Gure lurra saltzen badizuegu, gogoan hartu behar duzue, eta zuen semei erakutsi, ibaiak eta errekek gure arreba direla eta baita zuen ere, eta horregatik anaiak anaiari dion begirunea izan behar diozue ibaiari.

Badakigu gizon zuriak ez duela gure bizimodua konprenitzen. Bera- rentzat gure lur zati bat eta hurrengoa berdinak dira, gauean etorri eta lurretik behar duena hartzen duen arrotza baita. Lurra ez da bere arreba, etsaia baizik, eta behin konkistatu duenean, bere bidean aurrera segitzen du, gurasoen hilobia atzean uzten duela batere axolarik gabe. **Hondatuta lagatzen dio lurra semeari, eta ez dio axola.** Ahaztu egiten ditu bai aitaren hilobia, bai semearen ondarea. Ama lurra eta bere anaia zerua saldu eta erosten diren gauzak balira bezala erabiltzen ditu edo hazi eta saltzen diren ardiak bezala. Bere antsiak irentsiko du lurra eta basamortu idorra bakarrik utziko du atzean.

Ez dakit, baina gure bizimodua oso bestelakoa da zuenaren aldean. Zuen hiriak ikusi hutsarekin penaz eta izuaz betetzen dira larrugorriaren begiak. Baina hau, beharbada, larrugorria basatia edo salbajea delako eta ezer konprenitzen ez duelako izango da.

Gizon zuriaren hirietan ez dago toki lasairik. Toki bat ere ez udabe-

rian zuhaitzetako hostoak nola irekitzen diren entzuteko edo intsektuen hegada aditzeko. Badirudi gizon zuriaren belarriak iraintzen dituztela hotsek. Baina zertarako bizi, gizonak ezin badu entzun hontzaren ulu zoragarria, edo ezin baditu aditu igelen gaueko eztabaidak putzu baten ertzean?

Larrugorria naiz eta ez dut ezer konprenitzen. Baina guk nahiago dugu haizearen zitzua entzutea eta eguerdiko euriak garbituta pinu usain gozoez datorren airea usaintzea.

Airea oso preziatua da larrugorriarentzat, piztiak, arbolak, gizonak, aire bera arnasten baitugu guztiok. Baina ematen du gizon zuriak ez duela airearen usaina aditzen; hiltzorian luzer dagoenaren antzera, ez du airearen hatsa sentitzen. Baina guk geure lurra saltzen badizuegu, gogoan hartu behar duzue airea gauza handia dela guretzat, gogoan hartu behar duzue airearen izpiritua biziarekin uztartua dagoela. Gure arbasoei biziaren lehen hatsa eman zien haizea ere bere azkeneko arnasetan dago. Guk gure lurra saltzen badizuegu, zuek gauza aparteko eta sakratua bezala zaindu behar duzue, leku bat non Gizon Zuriak ere dastatu ahal izango duen belazetako lore usain gozoa.

Horregatik, aintzat hartu dugu gure lurra erosteko egin diguzuen eskaintza.



Onartzea erabakitzen badugu, ordea, baldintza bat jarriko dut nik: **Gizon Zuriak anaiak balitu bezala hartu behar ditu lur honetako animaliak.**

Ni basatia naiz eta ez dut beste bizi-modurik konprenitzen. Milaka bisonte ikusi ditut zelaietan usteltzen, gizon zuriak martxan zihoan tren batetik tiroka hilak. Basatia naiz eta ez dut konprenitzen nola izan daitekeen inportanteagoa kea darion makina bat guk jateko bakarrik hiltzen dugun bufaloa baino.

Zer da gizona animaliarik gabe? Animalia guztiak joango balira, gizona ere barkadadez hilko litzateke. Eta animaliei gertatzen zaiena gertatuko zaio gizonari ere, dena lotuta baitoa. **Erakutsi zeuen seme-ei zapaltzen duten lurra gure arbasoen errautsak direla.** Erakutsi zeuen seme-ei izaki guztiak errespetatzen, guztion beharra baitu biziak. Erakutsi zeuen seme-ei guk geurei erakutsi diegun bezala, lurra dela gure ama. Gizonak lurrari txistua botatzen badio, bere buruari botatzen dio.

Hau dakigu: lurra ez da gizonarena, gizona da lurrarena. Hau dakigu: dena dago lotuta, familia bat elkartzen duen odola bezala. Dena dago lotuta.

**“
Lurrari gertatzen
zaion guztia gertatuko
zaie lurraren seme-ei”**

Lurrari gertatzen zaion guztia gertatuko zaie lurraren seme-ei. Gizonak ez zuen ehundu biziaren mataza; bera hari bat besterik ez da. Matazari egiten diona bere buruari egiten dio.

Gizon zuriaren Jainkoa bera ere ez da libratzen guztion patutik. Azken batean beharbada anaiak gara denok. ikusiko dugu. Gizon zuriak akaso egunen batean aurkituko duen gauza bat dakigu guk: Gure Jainkoa zuen Jainko berbera da. Gizon zuriak lagunak lagunari hitz egiten dion moduan jarduten du bere Jainkoarekin. Agian, uste duzue zuengan bakarrik duzuela, -zuen eta beste inorena ez dela, baina ez da hala. Bera gizon guztion Jainkoa da eta bere errukia berdina da zuria eta gorri-enganako. **Ama lurra oso preziatua da Jainkoarentzat eta lurra hondatzea Sortzaileari mesprezioa egitea da.**

Gizon zuria ere galduko da, beharbada beste tribu eta leinu guztiak baino lehen. Segi bezate beren ohea kutsatzen gau batean beren basamortuan hilko dira, berek sortu hondakineta itota.

Baina zuen galbidea ohorez betea duzue, lur honetara ekarri zintuzten Jainkoaren indarrak argitua. Jainkoak lur jabetza eman dizue eta zuen menpean jarri du larrugorria. Patu han misterio handia da guretzat, ez baitugu ulertzen zergatik akabatzen diren bufaloak, zergatik hezten diren zaldi basatiak, zergatik urratzen diren hainbeste gizonen amasekin basoko bazter sekretuak, edo zergatik mendiak itotzen diren kable hiltunekin. Non da sastraka? Suntsitua. Non da arranoa? Ezkutatatu egin da. Bukatu da bizia eta iraupena hasi da.

LIBURUA

Jose Luis Sampedro: ‘Ilustraciones de Sequeiros, El mercado y la globalización’. Destino, Barcelona 2002. Egileak merkatu ekonomia nolakoa irakurleari eta gainera uste osoz adierazten du, ez dugula bizi Historiaren amaiera, baizik eta bere etengabeko eboluzio eta aldaketa.

JAKIN BEHARREKOA

2002ko Aste Berdea: maizta bukaera eta ekaina haserarako zenbait ekitaldi eta lehiaketa antolatu ditu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Garapen Jasangarriaren inguruan. Informazio gehiago web orri hauetan: www.asteberdea.net; www.ingurumena.net.

GARIAIAN GARAIKOA

Eguraldia batzuetan euritsua eta fresko eta besteetan beroak lagunduta majo ari dira hazten belarrak. Asko loratuta aurkitu ditzakegu, hain ikusgarriak diren orkideo txikiak horien artean. Udaberri koloretsua dugu gure baserri inguruetan. Goi aldeetan ere nabaria da. Zuhaitz guztiak hostatu dira. Guztiak? Ez, bada oraindik erabat esnatu gabe aurkitzen den bat. Ametza, bertako zuhaitzen artean azkena hostatzen dena, orain ari da hostoak zabalitzen, bere hosto iletsuak itxura grisaxka ematen dio eta nabarmena egiten da gure hareharritzko mendien gain eta eguteretan.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Arratsaldeko 4,30etatik 8etara, Garagartza plazan:

Ordiziako ostiraletako azoka: kalitatezko produktuen bilgunea

Azoka berria estreinatu zuen Ordiziak maiatzaren 17an: Ostiral arratsaldeetako azoka, kalitatearen azoka. Erosle berria erakarri nahi dute azokara Ordiziako Udaletxekoek. Manolo Iturrioz, Zerbitzu, Sustapen eta Garapen zinegotziak eman dizkigu xehetasunak.

- Nondik nora iritsi da ostiraletako azoka egiteko ideia?

- Noiz zehazki ez dakit, baina duela 10 urte baino gehiago, ideia Udaletxean zegoen. Udal taldeek hartua zeukaten kalitateko azoka egiteko erabakia. 'Delicatessen' azoka deitzen zitzaion garai hartan. Guk, azokaren Plan Estrategikoaren barruan zeuden aukerak ikusita, ostiraletako azoka aurrera ateratzeko aukera ikusi nuen. Aurrez hartuta zegoen erabakiari data jarri genion, maiatzak 17. Eta iritsi da eguna.

- Zergatik aukeratu duzue ostirala eta zergatik arratsaldea?

- Ostiraletako azokaren helburua asteen zehar erosketak egin ezin duen jendea geureganatzea da. Gaur egungo



Sukaldarien babesa

Maiatzaren 17an, arratsaldeko 5ak pasatxo zirela egin zen azokaren irekiera ofiziala. Ordiziako alkatea erdian, Gipuzkoako Diputazioko eta Eusko Jaurlaritzako nekazal zuzendaria ezker-eskuin, eta Euskal Herriko sukaldari ospetsuak (Hilario Arbelaitz, Pedro Subijana, Karlos Argiñano, Martin Berasategi, Jose Juan Castillo eta Juan Mari Arzak) bazterretan, herritarrei erosketak egiteko gonbitea luzatu zieten.

egoeran, senar-emazteek biek egiten dute lan eta ez daukate denborarik asteazkenetako azokara etortzeko. Ezintasun hori ikusita eta kalitatea, bizi-tza kalitatea, turismoa eta aisia gaineratuta, arrazonamendu gehiagorik ez dago.

Larunbata edo igandea hor daude baina beste azoka batzuk egoten dira. Beti etika bat mantentzen saiatu gara beste azokekin, azken batean, azokak oso erlazionatuta gaude eta ezin gara baserritarren

kontra joan. Elkarrekin lan egin behar dugu eta Ordiziak ezin dio bere buruari bakarrik begiratu.

- Arratsaldetan egiten den beste azokarik ezagutzen al duzu?

- Nik dakidala ez dago besterik. Orain, Donostian, ideia hartu digute eta ostiraletako azoka arratsaldera luzatuko dute. Baina ez gaude kezkatuta, gure helburua desberdina baita: kalitatearen azoka on bat antolatu eta manten-

tzea.

- Baserritarrek nola hartu dute ekimen berria?

- Ilusioz beteak daude. Antolakuntzatik guztia garbi eta garden egiten saiatu gara. Urtariletik hona hasitako bilerrara jende asko etorri da. Baserritarren edo saltzaileen ordezkariak bertan egon dira eta beraiekin batera hartu dira erabakiak. Justu ez dakigu zer nahi dugun, baina denborarekin joango gara moldatzen. Akatsak egin eta zuzenduz, perfektiora iritsi nahi dugu, baina beti ere, guztion adostasunarekin.

- Peri Berriaren Batzordea sortu da, ezta?

- Bai. Udaletxeko zerbitzuak, langile teknikoak, baserritarrak, Goimen eta merkataria osatzen dugu.

- Asteazkenetako azokari itzalik egingo ote dionaren beldurrik ez al daukazu?

- Ez da hori gure nahia. Ostiraletako azokari begira lan egin badugu, asteazkenekoan ezin izan dugulako izan da. Ordiziako azoka tradizionala asteazkenekoa da. Gertatzen da, obrak dauden bezala, ezin dugula Plaza Nagusira eraman. Kalitatezko azokaren arrakasta ikusteko dago.

Otsailaren 9an irekiko dugu

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosegi, 16 LAZKAO

"Ostiraletako azoka asteazkenetako -aren parte bat da. Lanik zailena asteazkenetako azoka aurrera ateratzen daukagu".

- **Saltzaileak, 20 izango dira.**
- 20 eta 30 saltzaile bitarteko kopuruarekin pentsatzen ari ginen. Hasieran gutxiagorekin hasiko ginela uste genuen, baina garrantzitsuena hastea zen. Uste baino erantzun hobea jaso dugu.

- **Nola antolatuko da azoka?**
- Ostiraletan 3,30etan jarriko dira mahaiak, aurretik erabaki bezala. Asteazkenetako mahai berberak erabiliko ditugu, mantelekin txukunduta. Aurrera begira, ikerkuntzako enpresa batekin, gaur egungo garaietara egokitutako postuak egin nahi dira, behar guztietatik begiratuta. Behin azoka martxan jarrita, lan horrekin hasiko gara. Zirriborro batzuk eginda daude. Txiki-keria da, baina garrantzitsua.

- **Irudi berria ere estreinatuko du Ordiziako azokak.**

- I+D enpresarekin lanean ari gara aspaldi samarretik. Ordiziako azokaren Plan Estrategikoa burutu dugu elkarrekin.



Saltzaileak

20 postu egongo dira. *"Kalitatea izango da ostiraleroko peria berriaren ikurra, eta horrek isla izango du ekoizleei eskatutako betebeharretan, hala nola: bertan sortua izatea, osasun kontrola izatea, ingurumena errespetatuz egiten den ekoizpena izatea, elikagaien kalitatea eta produktuaren itxura".*

Barazkiak: Jose M. Uzin (Azkoitia), Arantza Zurutuza (Arma), Edurne Jauregi (Baliarrain), M. Jesus Mujika (Lazkao), Juanita Murgiondo (Mutiloa), Eugeni Arretxe (Berrobi), Pili Eskisabel (Ataun) eta Jorge Garcia (Zegama).

Landareak: Patxi Izagirre (Montes-Ibarra).

Frutak: Ramon Aseginolaza (Idiazabal).

Loreak: Iñaki Azanza (Zaldibia).

Gazta: Jose Ramon Arsuaga (Ordizia) eta Amelia Jauregi (Gabiria).

Orein produktuak: Agustin Linazasoro (Beasain).

Mermelada eta menbrilloa: Aldabe (Zerain).

Arrautza ekologikoak: Migel Igoa (Aizarnazabal).

Ahuntz gazta ekologikoa: Xabier Almandoz (Tolosa).

Idea asko daude. Norabidea zehaztuta daukagu. I+D-ek egindako lanetarikoa bat, logotipo berria izan da. Kalitatearen marka, lurreko produktuaren eta plazaren ikurra batzen ditu. Plaza Nagusiko

zutabearen irudia da, bi alderedirekin: bat, azoka esparru tradizionalan egiten dela adierazten du eta bestea, kalitatea, zutabeak adierazten du, noblezia.

- **Irudi ezberdina izango al du azoka bakoitzak.**

- Ez, irudi orokor bat egitera goaz. Irudi berria Plan Estrategikoaren zati da.

- **Hasieran gaizki ulertua izan eta asteazkenetako azoka ostiralera pasako zela ulertu zuen jendeak.**

- Konfusioa komunikabide batek sortu zuen. Ostiraletako azoka asteazkenetakoaren parte bat da. Lanik zailena asteazkenetako azoka aurrera ateratzen daukagu. Azoka txikia izateak, asteazkenetako azokan zer txertatu dezakegun ikasten joango gara. Hemendik aurrera, asteazkenetako azokari begira hasiko gara lanean. Ideia asko daukagu. Plan Estrategikoaren barruan, lan ildo bat zehaztu behar dugu, datak ezarriz. Asteazkenetako azokak askoz ere jende gehiago lotzen du. Gara-garata plazan egoten direnekin batera, beste saltzaile asko etortzen dira. Zailtasun gehiago izango dugu lanerako. Baina guztiok aurrera ateratzeko asmoa izanez gero, aurrera ateratzea espero dugu.

Datorren urteko maiatzean edo ekainean berriz ere Plaza Nagusian egotea aurreikusten dugu. Beraz, urtebeteko lana daukagu azoka hori prestatzeko.

- **Azoka berezietan aldaketarik egongo al da?**

- Ez, orain arteko dinamika jarraituko dute.



ARRIKUTZ Tailerrak

Autoen konponketa orokorrak

Salmenta

Informazioa

Karnetik gabeko autoak

Tel.: 943 88 52 00

Nafarroa Etorbidea, 51

BEASAIN

HONDA



Martin Ibarbia, Euskadiko Filmmategiko lehendakaria: "Nire grina pertsonalak, bi dira: euskara eta zinema"

Euskal Herrian, ikus-entzunezkoaren arloan, Martin Ibarbia beasaindarraren izena erreferentzia puntu garrantzitsua da. Euskal Telebistaren sortzailetarik bat izan da. Gaur egun, Orio Produktzioak etxeko arduraduna izatearekin batera, Euskadiko Filmmategiaren lehendakaria ere bada.

Donostiako Udalak Euskadiko Filmmategiari Urrezko Danborra saria eman zion San Sebastian egunez. Bertsoz eskertu zuen saria Martin Ibarbia beasaindarrak. Elkarriketaren lehenengo zati honetan, Euskadiko Filmmategiaren lanaz aritu gara.

Euskadiko Filmmategiaren lana, ikus-entzunezkoaren arloan, Euskal Herriaren memoria bildu, gorde eta aztertzea da. "Filmmategia artxibo bat da. Guk ikus-entzunezko materiala bildu egiten dugu. Sorreran zinekoa bakarrik baina gaur egun ikus-entzunezkoa ere bai, gaurko egunari egokituz. Pelikulak egitea, laburmetraiak egitea... herri baten memoria da. Artxibo baten funtsa memoria gordetzea da", zehaztu du Martin Ibarbiak. Euskaldunok oso berehala onartu omen genuen Lumieretarren asmakizuna. "Lumieretarrek 1898an asmatu zuten grabatzeko tresna eta handik bi urtera Euskal Herria zeuden proiektatzen bai Miarritzen, bai Donostian eta bai Bilbon. Gero espektakulu bihurtu



zen, ere hor ere Euskal Herria Madril eta Bartzelonaren pareko dago", zehaztu du.

Euskal Herriarekin lotura duen materiala biltzen dute. "Batetik, guk geuk sortu dugun memoria; geuk egin ditugun era guztietako filmak, dokumentuak... Era amateurrean egindako materialak ere balio du. Bestetik, besteek guri begira egin dutena". Adibide bat jarri digu Martin Ibarbiak: "guretzat egundoko balioa du deskubritzea, San Francisco, EEBBetan, euskal artzainei buruzko bi dokumental egin zirela. Kopia lortu nuen, VHSean. Aulestiako artzain bati buruzkoa zen. Bere ezkontza egunean hasten da dokumentala. Bazkaria, herriko giroa... biltzen ditu. Gero Amerikara doa. Aireportuan beste euskaldun batek hartzen du eta goitik behera aldatzen dute. Detaillez detaille jarraitzen dute artzaina: izotza, otsoak, erditzea, hildako bildotsak, ahoarekin nola kapatzen dituzten ardiak... Dokumentu bezala izugarria da".

Zine mututik hasi eta soinudun zinerainoko bilakaera bildu du Euskadiko Filmmategiak. "Au Pays de Basque" filma hor dugu, bertan entzu-

ten dira lehenengoz euskarazko hitzak. Miarritzen grabatua izan zen. Niretzat dokumenturik baliotsuenetarikoa haxe da", aitortu digu beasaindarrak.

Berreskuratze lana ere egiten du Euskadiko Filmmategiak. "Gure lana ez da bukatzen biltzearekin eta gordetzearekin. Gordetze hitzak esan nahi du baita ere, material batzuk berreskuratzea. Alegia, batzuk desaginda etortzen dira eta ahal dena salbatu egin nahi dugu. Kopiak egiten ditugu eta hori da garestiena. Baina kasu batzuetan dokumentu bakarrak direlako, egin egin behar dira lan horiek."

Gizarteari eskaini

Dokumentuak aztertu nahi dituenak ateak zabalik ditu Euskadiko Filmmategian. "Gizarteari eskaintzeko tartean dagoen lana Filmmategiak egiten du. Ondo kontserbatu, ondo gorde, ondo bideratu jendeak egokiera izan dezan hori aztertzeko eta lantzeko. Azken elementu bat ere badago: guk gordeta eta aztertuta ditugun gai eta elementu horiek jendeari jakinaraztea. Dibulgazio lana litzateke. Liburuen bidez argitaratzen ditugu", zehaztu du beasaindarrak.

Sorreratik

Euskadiko Filmmategia sortu zenetik dabil Martin Ibarbia bertan lanean. Filmmategia elkarte pribatu da. "Pello Aldazabalek elkarte gintuen zinezale batzuk duela 24 urte, berak ikusten zuelako gure memoria ez zegoela gordeta, eta desagertzen ari zela. Euskadiko Filmmategiaren lehenengo egoitza, Pello Aldazabalen logela izan zen. Gaur egun Bizkaia pasealekuan gaude. Orain, Donostia Gas fabrika egokitu eta bertara pasatzeko asmoa daukagu, Filmmategia instituzionalizatuz. Orain arte, era guztiz amateurrean garatu den proiektua da."

Duela ia hiru urte hartu zuen Ibarbiak Filmmategiaren lehendakari kargua. Garbi zeukan beasaindarrak bere erronka zein izango zen: Filmmategiak euskal erakundeen babesa jasotzea. "Ofizialki, urteetan, administrazioak eta gainerako erakundeek ondo ikusi duten proiektua izan da baina ez diote baliorik erakutsi. Adierazpen fuerte batzuk egin nituen, esanez, denbora jakin batean ez bagenuen lortzen administrazioarekin harreman jator bat, desegin egingo genukeela elkarte. Gure estatuen arabera, Jaurlaritzaren eskutan geldituko litzateke. Eusko Jaurlaritzak berehala erreakzionatu zuen. Harremanetan jarri eta berehala ulertu gintuen". Horrek ekarri du Filmmategi berriaren proiektua. Donostia Gas fabrika zaharrean kokatuko baita. Fundazioa ere sortuko da Filmmategia.

Zinezalea

Martin Ibarbia zinezale amorratua izan da betidanik. Zaletasuna nondik ote datorkion galdetu diogu. “Ni 9 urterekin, San Martinen bizi ginela, bi edo hiru aulki juntatzen nituen, soka ipini, erratza hartu eta bakeroak bezala zaldi gainean ibiltzen nintzen. Han amesten nuen irakurtzen nuen. Nire lehenengo kontaktua zinemarekin hori da. Bigarren berriz, Beasaingo Salon zineman, larunbatetan han ikusten genuen zinea, nota onak ateraz gero. Pelikula bakar batekin gogoratzen naiz nabarmen: ‘La bruja’. Pelikula frantsesa zen, Marina Blaudy aktorea zen eta guretzat Marina Blaudy, zerutik jaitsitako amorante bat izan zen. Koadrila erdia maitemindu ginen Marina Blaudyarekin. Gaur oraindik zutik dagoen moja etxean, hor ikasia naiz, Parrokiak zine emanaldiak antolatzen zituen. Musu bat eman behar zutenean aktoreek, eskua jartzen zuten proiektzio aurrean eta ez zen ikusten. Boris Karloff aktorearen filmak jartzen zizkiguten. Terrorezko filmak izaten ziren”.

Aldizkariak eta liburuak irakurri, tarteka Donostiara joan filmak ikustera... Zine Klubak sortzen hasi ziren Goierrin geroago. “Baina erdal hitzekoak ziren. Ikusi nuen, Urola bailaran, baze-goela nire kezka hori euskaraz garatzeko aukera. Azpeitira eta Zestoara joaten hasi nintzen, motorrean, euskaldun giroan murgiltzeko. Fo-



roak euskaraz egiten genituen”, zehaztu digu.

Segura Irratian urte eta erdi inguruan, ‘Cara al cine’ irratsaioa egin zuen, “erdaraz, euskaraz ez nekielako. Zentimorik kobratu gabe aritu nintzen. Bertako apaizarekin izan nuen liskarra. Hark esaten zidan, kritikarekin eta komentariorekin batera, espektakuluaren kalifikazio moralak eman behar nuela. Nik ezetz esan nion. Nahi bazuen berak emateko, baina nik ez nuela egingo. Bota egin ninduten. Vespa zaharrean joaten nintzen Segurara.”

Euskara

18 urterekin hasi zen Martin Ibarbia euskara ikasten. “Aita Usategi baserrikoa zen eta ama Bordelekoa. Amak euskaraz bi hitz zekizkien, aita euskalduna zen, baina garai hura, 1943an jaioa naiz, erdal munduan hezi ginen. 18 urterekin konturatu nintzen ez nekiela euskaraz. Andoni Sarriegirekin, Jon Tolosarekin... hasi nintzen euskara

ikasten. Garai hartako Zeru-ko Argia goitik behera irakurri eta Isaac Lopez Mendizabalen hiztegiarekin ikasi nuen”.

Harrezkero, bere bi zaletasun uztartzen saiatzen da. “Nire grina pertsonalak, bi dira: euskara eta zinema. Politikan beti egon izan naiz sartuta baina beti bigarren mailakoa izan da niretzat”. Gaur egun politika utzia du.

Euskal Telebista

1981ean aldaketa nabarmena bizi izan zuen Martin Ibarbiak, Beasaindik Gasteiza joatea. “1981ean Ramon Labaienek deitu zidan telebista montatu behar zela-eta ea parte hartuko nuen esanez. Ezkondua nintzen, bi haur txiki, negozioa Beasainen... Gasteiza joatea erabaki nuen. Bi urte barru Euskal Telebista egina zegoen. Ohore handia daukat sorrera hartan parte hartu nuelako. Programa buru eta erorsketa buru izan nintzen. 1985ean dimititu nuen ETBtik”.

Orio Produkzioak

Betiko zaletasuna ofizio du Martin Ibarbiak. Orio Produkzioak enpresaren ardura duna da. “Batez ere, ETBera-ko produktuak egiten ditugu. Gehienbat euskaraz egiten dut lan. Gure lantegian euskaraz sortzen ditugu produktuak eta erdaraz egin behar bada, euskararen itzulpenak izaten dira”, adierazi digu Martin Ibarbiak.

Programa mota asko egin izan ditu. Dokumentalak, magazín kulturalak, musikalak, Penelope-enea, Hitzaro... Iaz Fatimetu dokumentala egin zuen, Gurutze Irizar ormaiztegiarraren bizitzan oinarritua. ‘Errusian bizi ala hil’ dokumental sorta bereziki gogoratzen du Martin Ibarbiak. “1992an egin nuen, Moskun bertan. Euskaldun jendea bildu nuen, gerra garaian haur joan zirenak. Urtero ahalegintzen gara, gai bat bilatzen dokumentala egiteko”.

Ibarbiak bere ametssetako asmoa zein den oso garbi dauka: Euskal Telebistarako drama euskaraz egitea. “Nik uste Euskal Telebistak duen defizita dela, momentu honetan. Goenkale azierto bat izan da, nire iritzirako luzee-gi bada ere, euskaldunontzat aportazio garrantzitsua izan da. Komedia batzuk ere egin dira eta egiten ari dira. Bide hori ondo dago baina ez da nahikoa. Nik nire buruari galdetzen diot, euskaldunok ez daukagun negar egiteko eskubidea, euskaraz”, aitortu digu Martin Ibarbiak.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

San Adrian eguna igandean

Igandean, maiatzak 26 egingo da San Adrian eguneko erromeria. Antzinako ohitura honen helburua, Idiazabalek Partzonerian duen parte hartzea bermatzea da. Historian, aldaketa asko izan dituen erromeria da. Antzina astear-tean egiten zen, Pazko bigarreanean. Jendeak ordea joate-ari utzi egin zion, erromeria lan egunean egiten zelako.

Emakumeak festa honetan parte hartzen hasi zirela ere ez dira urte asko. Duela hamarkada gutxira arte galara-zita izan dute San Adrian eguneko ekitaldietan parte hartzea. Hori aldatzeko, herriko emakume talde batek egindako lanari esker, ema-

kumeak ere hasi ziren erro-merian parte hartzen. Gizo-nezko askok ez zuen erabakia ongi ikusi, eta urteren batean boikota egin zioten irteerari. Garaiak aldatuta, Korpus au-rreko igandean egiten da San Adriango ospakizuna. Giza-seme eta emakumeek, guz-tiek dute berdin-berdin parte hartzeko aukera.

Iganderako zita, autobuse-an joan behar dutenentzat goizeko 7etan da Mujika jate-txearen aurrean. San Adrian-go pasabidean meza izango da goizean, ondoren, gosaria eta itzulera Zegaman eta Se-guran geldialdiak eginda.

Arratsaldean, ardoa parti-tuko dute Udaletxeko arkupe-

an eta mahaiaik jarriko dituzte bertan afaldu nahi dutenen-tzat. Udalak, joaten direnen artean banatuko dituen baleak ekainaren 2a bitartean trukatu behar dira herriko denda eta tabernetan.

Etzegarate

Etzegarateko Nafarroako za-tiaren inaugurazioa hiru hila-bete atzeratu litekeela jakina-razi du Nafarroako Gober-nuak. Altsasutik Gipuzkoako muga bitarteko errepide zatia uztaileko bukatzea zegoen aurreikusita, epea, ordea, urrira arte atzeratu liteke.

Lanak zati horretan oso aurreratuta dauden arren, Na-farroako Gobernua Altsasuko sarrera irteeretan aldaketak ekarriko dituen proiektua prestatzen ari da. Lan berriek hiru hilabeteko atzerapenaz gain, 2,3 milioi euro gehiago gastatu beharra ere ekarriko dute.

Zuberoa

Udalbiltzaren ekimenarekin bat egin eta Zuberoaren alde dirua biltzeko herrian sortu den taldeak, errifak jarri ditu salgai. 2 eurotan salduko di-tuzte txartelak eta 500 euroko lau sari zozketatuko dituzte uztailearen hasieran. Errifak tabernetan egongo dira sal-gai, ala ere, kalean saltzeko jendearen bila ere ari dira.

Udalbiltzak egindako kal-kuluen arabera, Idiazabalen 3750 euro bildu behar dira Zuberoari laguntzeko. Errifez gain, dirua biltzeko beste eki-men batzuk antolatzeke lane-an ari da herrian sortutako taldea.

Musika emanaldia

Maiatzaren 31n, Izturi musi-ka taldearen emanaldia izan-go da, arratsaldeko 8etan Pi-lar Eneako jardinetan.

Xabier Urteaga

Ekainean hasiko dira autobidearen lanak

Datorren hilean berrekingo zaie Beasain-Durango errepi-dearen luzapenerako lanei. Alegiko auzotik Zumarraga-raino zabalduko dute aldi ho-netan lau karrileko autobidea, Foru Aldunditik jakinarazi dutenez, eta gure udalerritik barrena igaroko da trazatua. Bost kilometro eta erdiko lu-zera izango du bide zati be-rriak, eta 24 hilabeteko epean burutzeko asmoa agertzen da proiektuan. Aurrekontua, be-rriz, 38,5 milioi eurokoa du.

Udaletxean ikusgai egon den proiektuaren maketak adierazten duenez, errepidea

gaur amaitzen den lekutik ar-gindar zentralera bitartean hi-ru zubibide altxako dira, Ale-giko irteeran lehena, Errazti inguruan eta Santa Luzian hi-rugarrena. Zentral parean sar-tuko da, gainera, autobidea Gabiriako lurretan, bailara ai-rean zeharkatuko duen zubi baten bidez. Urkiola baino harantzaxeago irten aurretik Orbeldi eta Santa Luzia zoz-kerak ukituko ditu.

Autobide honetako lanik garrantzitsuena Santa Luzia-ko zubibidea izango da; luze-ran 372 metro eta hamar begi izango ditu, zabaleran 23 me-



Jaunartzea

Lehengo igandean jaunartzea egin zuten bederatzi urteko Ne-reia Murua eta Iban Maiz.

tro. Eraikitze lanak zaildu egingo ditu gainera egungo errepideko mugimenduak, eta baita tentsio altuko hariak ere, hauen azpitik pasa behar baitu. Horiez gain autobidea-ren azpitik sei tunel utziko di-ra, eta gainetik bi pasabide al-txa.

Lur-mugitze handiak era-gingo dituen beste puntu bat

gure udal barrutian egokitu da, izan ere Gaztelu eta Az-kartza baserrien artean zerbi-tzugune bat kokatuko da, ga-solindegia, denda eta abarre-kin, bana noranzko bakoitze-an. Trenbidea baino harago joango da errepide berria uneoro herriko partean, Ez-kio-Itsaso aldera.

Aimar Maiz

Museo eguna ospatzeko internet bidezko jokoa

Maiatzaren 18an, Nazioarteko Museo Eguna izan dela eta Zumalakarregi Museoak aipatu eguna ospatzeko asmoz urtero bezala hainbat ekimen prestatu izan ditu.

Aurtengoan bi ekimen nagusiez osaturiko egitaraua prestatu izan dute. Batetik internet bitarteko hartuz edo nork munduko edozein tokietatik joko eragilean parte hartzeko aukera aurkeztzen duena, bestea berriz azken urteetan ospatu den bezala herrian burutuko zen tirabira Ormaiztegin deituriko lehiaketa.

Internet bidezko joko elkar eragilea

Zumalakarregi Museoak, 2002ko Nazioarteko Museo Egunaren helburuarekin bat etorritik eta munduari zabalik dagoela adierazi nahian, historia on line bere aldizkari elektronikoan Internet bidezko joko elkar eragilea antolatu du.

gipuzkoa.net/kultura/museos/zm/01zme.html helbidean sartu eta Museoarekin jokatzea ahal izango du nahi duen

edozeinek. Ezarritako galderen erantzun zuzenak bidaltzen dituzten guztiek ustekabeko zerbait jasoko dute oparri, urrutienetik erantzunda ere. Gaia eta garaia, nola ez, Museoarenak dira, XIX. mendean zehar emandako aldaketa iraultzaileak, baina esparrua mundu osora zabaldua.

Aitziber Murua



8 haurrek egingo dute lehenengo jaunartzea

Igandean, maiatzak 26, herriko 8 haurrek hartuko dute lehenengo jaunartzea, elizkizuna eguerdiko 12etatik aurrera herriko Ander Deunaren parrokiara ospatu da. Azken egun hauetan gaur lekuko garrantzitsuenak izango diren zortzi haurrak pozez gainezka aurkitu izan dira, beraiek irrikiz beterik itxaron duten eguna iritsi zaielarik.

Aurtengoan lekuko hori hartuko dutenak lau neska eta lau mutil izango dira. Hain zuzen lehenengo jaunartzea egingo dutenak, Laura De Carballo, Irene Gilabert, Mikel Goitia, Amaia Perez de Albeniz, David Perez de Albeniz, Joanes Mujika, Gorane Yurrita eta Haritz Urkiola izango dira. Aipatu hurrez gain beraien taldekidea den Aizpea Lasak orain egun batzuk Ezkio-Itsasoko, Itsasoko parroki elizan, bere lehenengo jaunartzea egin zuelarik.

Gurasoentzat Psikologun gabinetekoen hitzaldia

Herriko eskolan hiruhilabeteko guraso elkar-tearen ekimenez eta herriko udalaren laguntzarekin psikologoek zuzenduriko hitzaldia antolatzen da. Hurrengo hitzaldia maiatzaren 29an, asteazkena, arratsaldean ohi bezala eskolan burutuko da, Ordiziako psikologun gabineteko psikologo batek zuzendurik. Berezi ki guraso eta seme-alaben arteko harremanetan oinarrituriko gaiak jorratuko dira, gurasoek beraien galderak burutzeko aukera irekia izango dutelarik.

Baserritarrek San Isidro eguna ospatu zuten

Maiatzaren 15ean ohi bezala herriko baserritarrek beraien zaindariaren eguna ospatu zu-

ten. San Isidro eguna lehenik meza batean elkarturik ospatu zuten, ondoren Arana tabernan afaria izan zuten.

Haurren euskal dantza ikastaro arrakastatsua

Guraso Elkartearen ekimenez eta herriko udalaren laguntzaz haurrentzat antolaturiko euskal dantza ikastaroa arrakasta handia izaten ari da. Dantza ikastaroari hasiera apirilaren 27an eman zitzaion eta ordu ezkerotik herriko haurrak larunbatetan oso gustura joaten dira dantzak ikastera. Ikastaroa aurrera eramatearen eta hurrei dantzak erakustearen ardura bere gain harturik ezin baino hobeto eramaten ari direnak Beasaingo Aurtzaka taldeko dantzariak dira. Lau urte eta bosgarren maila bitarteko 30 haur baino gehiago ari direlarik aipatu dantza ikastaroan parte hartzen.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN



Ekainak 1:

Corpus Christi eguna

Azintzio jaiak pasatu zahar-
rak ez badira ere, ekainaren
lean, berri ere festa eguna
izango dugu herrian. Corpus
Christi eguna, alegia.

Eguneko egitaraua prest
dago eta jarraian duzue egu-
naren berri zehatza:

10:00etan: Diana dultzai-
nariekin.

11:30etan: Krosa. (Hama-
sei urte bitarteko korrikala-

riek herritarrek izan beharko
dute).

13:30etan: Krosaren sari
banaketa.

18:00etan: XIII. Ardo
dastatze txapelketa.

18:30etan: Udalak ardoa
eskainiko du herritar eta bisi-
tari guztientzat. Hau guztia,
Iraunkorrek txarangak alai-
tua.

Ekitaldi ugari ekainaren 8an eta 9an

Ekaineko bigarren asteburua ere bete-betea dator. Jarraian, ho-
na hemen, aurrerapentxo bat.

Ekainak 8:

17:00etan: Gimnasia erritmiko eta judo erakustaldia herriko
gaztetxoaren eskutik Harripila kiroldegian.

22:30etan: Bertso jaialdia Herri Zineman: Joxe Agirre, Amets
Arzallus, Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Aitor Mendilu-
ze, Aitor Sarriegi. Gai jartzailea: Joxe Mari Agirre 'Txato'.

Ekainak 9: II. Dantzari Txiki eguna.

Beasaingo Aurtzaka, Zaldibiako Iztueta eta Legorretako Irrin-
tzi Alai taldeetako dantzariak herria alaituko dute egun osoan.
Jaialdi nagusia, arratsaldeko Setan izango da, Harripila kirol-
degian.

19:30etan: Usariozko me-
riendak plazan, Iraunkorrek
txarangak alaitua.

Ondoren: goizaldera arte,
kalejira eta dantza saioa
Iraunkorrek txarangarekin.



I. Pintura lehiaketa, maiatzaren 25ean

Lehenengo aldiz, pintura
lehiaketa jokatu da herrian,
bihar, maiatzak 25. Edonork
har dezake parte lehiaketan
eta gaia Olaberria izango da.
Lanaren alde luzeenak ezingo
du metro bat baino gehiago
neurtu. Pinturaren teknika li-
brea izango da. Lana euskarri
gogor batean aurkeztuko da.

Euskarriak lehiaketa egu-
nean goizeko 9etatik 11ak bi-
tarteetan Udaletxean marka-
tuak izan beharko dute. Eus-

karriak aurrez prestatuak era-
man daitezke baina marrazki,
zirrimarra edo marra aztarna-
rik duenik ez da onartuko.
Lanak Udaletxean aurkeztu
behar dira, 13:30etik
14:30era, egilearen xehetasun
guztiak dituen kartazalarekin
batera. Ondoren nahi duena-
rentzat bazkaria izango da
Arkupe elkartearen. Sari bana-
keta arratsaldeko 6etan egin-
go da.

Garalderen Requiem-a antzerki lana

Maiatzaren 25ean, larunbata,
gaueko 10etan, Azpeitiko La-
krikun taldearen 'Garalderen
Requiem-a' antzezlanak ikusgai
izango da, pilotalekuan. Sarre-
ra: 5 euro.

Boni Alegria, Gurutze Eiz-
mendi, Mailo Eizaguirre, Olaitz
Olaizola, Jesus Maiz, Iñaki
Bergara, Pedro Oizatzabal eta
Martin Alegriak, ironiaz beteriko antzeslana burutuko dute.

Aurkeztutako lanekin era-
kusketa egingo da Udaletxe-
ko erakusketa aretoan, maia-
tzaren 27tik ekainaren 23ra,
larunbat eta igandeetan,
11:30etik 14:00etara. Eginiko
lana saldu nahi dutenek, pre-
zioa finkatuta aurkeztu behar-



ko dute. Lehenengo saria
Udalaren esku geldituko da.

Sariak: 1. 600 euro eta ga-
raikurra; 2. 300 euro eta ga-
raikurra; 3. 240 euro eta ga-
raikurra. Herriko 1. sailka-
tuak 150 euro eta garaikurra
jasoko ditu.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



Aezkoara irteera

Zaldibiako Osinberde Kultur Elkartek eta Aezkoako -Nafarroako bailara bat- Etxabarrenge elkartek egun berezia antolatu dute ekainaren 1era-ko. "Harremanak sakonduz, herria eraikitzen" lemapean elkartu eta nolabaiteko anai-kidetzat bat sortze bidean, egun pasa dotorea prestatu dute. Orain dela hilabete pare bat Aezkoako zenbait lagun etorri zen gure herrira, eta orain zaldibitarrek dira harantz joatekoak. Goizeko 11etan elkartean egingo den ongi etorriarekin emango zaio hasiera egunari. Ondoren, Orbaizetako ola eta harpea ezagutzeko aukera izango. Arratsaldeko 3etan, Sorogainen saihets jana egingo da musikaz alaiturik. 18:00etan, tarrapata ibiliko da Garraldan zehar eta 20:00etan Anje Duhaldek kantaldia eskainiko du. Gaueko 10etan afaria


izango da Etxabarrenge elkartean.

Bide batez, antolatzaileek honako oharra luzatu nahi dizue herritarroei: Aurizberriko kanpineko literatan lo egiteko aukera dago, baina horretarako izena ahal bezain laster ematea gomendatzen dute. Izena emateko epea gaur bukatzen da.

Bertso afaria Joxepanen

Osinberde Kultur Elkartek antolatuta, Xabier Amuriza eta Maialen Lujanbiok giro-tuko duten bertso afaria izango da bihar, larunbata, gaueko 9,30etan Joxepanen. Hauxe izango da menua: entsalada berezia, zapoa saltsan, oilasko errea, postre ikusgarria eta kafe konpletoa. Guztia 25 euroren truke. Txartelak Joxepanen daude salgai.

Laburrean



● **Mapa Toponimikoa.** Honez gero, zaldibitar guztion etxetan egongo da Udalak kaleratutako mapa toponimikoa. Maki-na bat buruhauste emandako lana izan da honakoa eta udal ordezkariak beren eskerrik beroena eman nahi diete mapa osatzen lagundu duten herritar guztiei. Beste maparen bat eskuratu nahi duenak Udaletxean du salgai hiru euroren truke.

● **Festetako bilera.** Datorren ostegunean, hilak 30, Santa Festak antolatzeko bilera egingo da Kultur Etxean, arratsaldeko 8etan. Orain dela astebete egin zen lehenengo bilera, baina harrek izandako harrera eskasa dela medio, deialdi berria egin dute. Jendearen parte hartzea eta bakoitzak bere proposamenak eramatea eskatzen dute batzordeko kideek.

● **Herriarteko txapelketatik kanpo.** Eskoriatzaren aurkako kanporaketa erraz pasatu bazuen ere -sei partiduetatik lau irabazita-, Azpeitian aurkari gogorra izan da gure herriko pilotarientzat eta herriarteko pilota txapelketatik kanpo geratu dira sei partidutatik bi bakarrik irabazi ondoren. Beste batean beharko du ba!

● **Angel Cuerdoren diapositiba emanaldia.** Gaur gaueko 22:00etan Angel Cuerdok "Korea, Txina, amets baten bidea" izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du.

Bertso saioa, AEK-k antolatuta

Datorren ostiralean, hilak 31, bertsolari gazteez osaturiko saioa ikusteko aukera izango da Antzokian. Saioa gaueko 10etan hasiko da eta bertan bost bertsolari ariko dira lanean: Sustrai Colina, Aitor Sarriegi, Nerea Elustondo, Ainhoa Agirreazaldegia eta Iñaki Apalategi. Gai jartzen eta aurkezle modura Saroi Jauregik jardungo du. Dakizuenez, AEK bi urtez behin Korrika antolatzen du, eta tarteko urteetan AEKnapada egin izan du orain arte. Aurtent, ordea, AEKnapadaren

ordez, euskal kulturarekin lotutako zenbait ekitaldi antolatu, dituzte, honako bertso saioa tarteko.

Mendi irteera San Tirsora

Igande honetan, hilak 26, eta Gailurrerantz mendi elkartek antolatuta, Arabako San Tirso mendira irteera egingo da. Bernedo heritik abiatuko da ibilaldia eta San Tirso gaina (1333 metro) igo ondoren, paella eder batez gozatzeko aukera izango da. Goizeko 8etan abiatuko da taldea plazatik.

Iñaki Gurrutxaga - Saroi Jauregi



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea **ORDIZIA**



N-1 errepidea, lurre auzoa
© 943 88 43 01 **OLABERRIA**

Otso festa'02

Giro ederrean ospatu zen, joan den larunbatean, aurtengo Otso Festako afaria. Afalosteantean, urtean zehar beren kirol jardunean nabarmendu diren herritarrek sarituak izan ziren, bai herrian urtean zehar antolatu diren kirol ikastaro zein txapelketetan, baita herritik kanpo, eta Euskal Herri mailan eta gure mugetatik kanpo ere nabarmendu direnak. Aurtengo kirolari omen duen artean honakoak ditugu: Iñaki Aierbe, aizkolaria; Ruth Kaiero, sokatiralaria; Iker Sukia, atleta; Egoitz Sukia, futbolaria eta Dioni Galparsoro, txirrindularia. Aipagarria, herritarren historiala. Iñaki Aierbe Euskadiko 3. mailako txapelketan lehenengo eta Gipuzkoako 2. mailakoan hiru garren. Egoitz Sukia, egun Eibar futbol taldeko jokalaria badugu ere, Andorra, Alaves eta Beasain taldeetan ere jokatu da. Dioni Galparsoro, besteak beste 2001 Gipuzkoako txapelduna, Aurtun Memorial Balenziaga... eta luze joko lukeen ilara, gainera aurtun profesionaletara igotzeko puntuan dago. Ruth Kaiero, munduko sokatira txapelketan parte hartu du berriki, goma gainean, Badaiotz talde gasteiztarrekin. Iker Sukia, Euskadiko errekorren jabea kategori guztietan. Bere marka onena: 19.05metro. Besteak beste.

Bestalde, Ataungo Kirol Elkartek sarituak ere aipagarri ditugu:

Kirolari saiatuenak: A.K.E. Avia saria: Haritz Urrestarazu. A.K.E. Bitor jate txea: Jokin Goikoetxea. A.K.E. neska kadeteak: Garazi etxeberria. A.K.E. pelota: Eñaut Sukia.

Kirolari erregularrenak: A.K.E. Avia saria: Jon Dorronsoro. A.K.E. Bitor jate txea: Aitor Etxeberria. A.K.E. neska kadeteak: Maialen Sukia. A.K.E. pelota: Eneko Imaz.

Kirolari goleatzaileenak: A.K.E. Avia saria: Eusko Sukia. A.K.E. Bitor jate txea: Aitor Arruabarrena. A.K.E. neska kadeteak: Maider Arruabarrena.

Soinetako sariak: Saiatuenak: San Gregorion: Mari-bel Auzmendi. San Martinen: Arantxa Arretxe. Aerobic-ean: Maixa Goikoetxea. Edadetuenak: Mertxe Aranzasti.

Txapelketak-txapeldunak: Eskuz: Jon dorronsoro eta Eusko Sukia. Frontenisa: Jon Dorronsoro eta aitor arruabarrena. Palaz: Koldo zaldua eta Joxe Arrondo. Tenisa: Koldo Zaldua eta Niko Begiristain. Badminton: San Gregorion 3. Adinekoak: Miren Goikoetxea. Bigarren Miel Arratibel. San Martingo helduak: M. Ixabel Imaz. Bigarren, Paki Mateos. San Gregoriko helduak: M. Jesus Begiristain. Bigarren Lurdes Auzmendi.

Areto futbola: Epailea Asier Etxeberria. Txapelduna Artadi.

Atsedentoki'02 jokoak Aurtengoan ere, ohiko eran ospatu dira Atsedent-Tokiko jokoak. Hona hemen sarituak:

Botean txapelduna Sebastian Auzmendi. **Zapoan** Antonio Goikoetxea. **Tokan** Jokin Aldabe. **Musean 4 erregetara** Sabino Bikuña eta Jose Imaz. Seiko Urrean Mercedes Etxeberria eta Josefa Eskisabel. **Tutean** Inazio

Zaharkinak 2002

Aste honetan hasi dira Ataunen, Ataungo Udalak, Foru Aldundiko Kultura Sailaren babesarekin eta Arantzadi Zientzia Elkartearen gidaritzapean Zaharkinak programa burutzen. Helburua, Ataungo baserrietako lanabes, tresneri, altzari zahar eta mota horretako gauzen katalogazio bat egitea da. Katalogo hau egiteko herriko baserri gehienak arakatuko dira.

Araketa

Maiatzaren 20tik ekainaren 6ra bitartean gauzatuko da. Ataungo baserri guztiak pasatzea ezinezkoa denez, hauetatik batzuk aukeratu dira. Hala eta guztiz, hauek gain norbaitek zer bait merezi duena duela uste badu Udaletxera deitu dezala.

Erakusketa

Ondoren, baserrietan aurkitutako pieza interesgarrien artean aukeraketa bat egingo da eta erakusketa antolatuko da Kiroldegian ekainaren 16tik uztailearen 14ra.

Baserriatarrei eta kale-etxekoei deia deia

Aranzadiko adituak eta herriko arduradunak ibiliko dira katalogazio lana egiten. Ataungo Udaletik guztien kolaborazioa eskatzen da zuen etxe eta baserrietan mihaketa lan hauek egin ahal izateko. Jakina da kale-etxe askotan ere gordetako gauza asko dagoela eta hauen deia ere gustura hartuko da.

Erakusketara ekartzen diren gauza guztiak bere jabeari itzuliko zaizkio behin bukatuta gero eta bitartean, bai garraio eta bai erakusketan dauden denborarako ere aseguru poliza bat eginda izango dute.

Etxeberria eta Blasa Aierdi. **Eskoban** Antonio Goikoetxea eta Josefa Etxeberria. **Puntuatzen** Felix eskisabel eta Martina izagirre. **Musean 8 erregetara** Jexux Urbiztondo eta Joxe Baztarrika.

Bestalde, esan, Atsedent Toki elkarteko taberna berri ere martxan dela: Maria Jesus Jaka arbizutar ataundartuak hartu du bertako ardura.

Afari-barrikotea Xiberoaren alde

Larunbat honetan, maiatzak 25, "Zuberotarrek bat auzolanean" kanpainaren barne, afari barrikotea izango da San Gregoriko Zelai frontoian gaueko 9etan, 15 euroren ordainetan. Afari honen berezitasuna, sagardoaz gain, Zuberoko Akerbeltz garagardoaz lagunduko dela da. Horrez gain, bertsolari eta trikitilariak ere han izango dira afaria alaitzeko.

San Isidro eguna Aian

Aurtengoan Aian ospatu zen San Isidro eguna giro ederrean. Honakoak sarituak: Barazki lehiaketan, Patxi Erauskin eta Bittori Barandiarani eman zitzaizen lehenengo saria. Ziza txapelketan Zeferino Auzmendi izan zen saritua.

Laur-labur

● Ostiral honetan, zine emanaldia izango da San Gregoriko elkarguneko proiektzio gelan. "L.A. Confidential" 21:45ean. Antolatzailea, Arantzadi kultur elkarte.

● Maiatzaren 26an, igandea, San Donatora irteera antolatu dute Oargi eta Artadi elkarteek. Irteera Goizeko 8,30etan izango da San Gregoriotik.

● Asteotan izan dugu Errota Berriko Eugeni Zurutuza eta Atxurreneko Jose Agirrerren heriotzen berri izan dugu. Doluminak sendiei.

Agurtzane Bikuña

Lurrazpiko edukinontzi berriak

Beasainen aurki lurrazpiko kontenedoreak jarriko dituzte. Indar zeneko baratzatan, Dolarea baserriaren atzeko aldean dago aurreikusia kontenedore hauek jartzea. Dagoneko, belar artifizialeko futbol-zelai berriaren parean ekipamendu berri hau hartzeko prestatu den zuloa ikus daiteke.

Lurrazpian lau kontenedore mota sartuko dira, beira, papera, ontziak eta gainerakoak jasoko dituztenak, orain arte bezala birziklapen aukerak bermatu asmoz. Sistema hau gainera, egungo kontenedoreen ordez urte bete barru gutxi gorabehera jarriko diren alboko bilketako kontenedore berriekin bateragarria izango da.

Sistema honek bere desabantailak ere baditu: instalazio aldetik oso garestiak dira, bilketa eta mantenimendu kostuak altuagoak dituzte, eraginkortasun aldetik ez dira batere malguak, izan ere zo-

rua behin zulatu eta barruan kontenedorea sartu eta gero ahalmen gehiago behar izanez gero ez du inolako tamaina aldaketarik onartzen ezta toki aldaketarik ere edozein ezuste izanez gero. Edonola ere, badirudi hasiera batean gomendagarria dela gisa horretako zenbait puntu instalatzea. Horrek bestalde, sistema hauen benetako eraginkortasuna neurtzeko balioko du.

Denok nahi ditugu kontenedoreak gertu izatea, modu erosoan erabili ahal izateko, baina gertuegi ere ez, "moles-tatu" egiten digutelako. Arazo hau konpontzeko Beasain bezalako dentsitate handiko hirigunean ez dago mirarik egiterik eta badirudi hau irtenbide bat izan litekeela. Kontuan izan behar da, egunero batzbestek, 1,2 kilo zabor sortzen dugula biztanleko.

Nekane Altuna

Langabezia datuak

2001eko 1. hiruhilabetea %6,71ko langabezia geneukan. Guz-tira 344 langabetu. 142 gizonezko eta 202 emakumezko. Langabezi handiena, 25-29 urteko gazteen artean ematen da.

Goierriko datuekin konparatzen badugu, esan, Goierrin %5,56 eta Gipuzkoan %7,62ko langabezia izan dela aurtengo lehen hiruhilabetea.

Jaiotza datuak

2002ko lehen hiruhilabetea 26 haur jaio dira Beasainen. 14 mutil eta 12 neska. Azken urteotan jaiotza tasaren bilakaera hau izan da:

1998an	103
1999an	103
2000an	117
2001ean	121



Jaiei errepasoa

Loinatzetan izandako hainbat lehiaketan irabazleak hauek dira.

● Azoka berezia:

- **Posturik dotoreenaren saria:** Beasaingo Murgoen baserriko Inazia Aranburu.

- **Bertako produktuei ematen zaien sarietan berriz,** Beasaingo Atarieder baserriko Maria Rosario Txintxurretarentzat izan da.

- **Loreetan,** Zaldibiako Iñaki Azanza izan zen irabazlea.

● **Erakusleihoetan:** Alpe Sukaldeak-altzariak, Artetsu eta Alosa.

● **Lagunarteko futbol txapelketa:** Potrozorri taldea gailendu zen Xisticus taldaren aurka jokaturako partiduan, 3 eta 2ko azken emaitzarekin.

● **Elkarteen arteko sukaldaritza:** bakailao pil-pilean atalean, Porteria-Alfil elkarte; orokorrean, Beti-Bizi elkarteari eman zioten saria.

● **Dantza lehiaketa:** Asier Ena eta Maite Lazkano.

● **Beasain Hiria argazki lehiaketa:** Asier Arrese.



Amona Mariak, 100 urte

Maria Agirre Tolosak, 100 urte bete zituen maiatzaren 19an. Beasainek eta Gipuzkoak zoriondu egin nahi izan zuten amona Maria. Jon Jauregi alkateak eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak, oroigarri bana eman zioten amona Mariari. Jaiotzez gabiriarra, Matximentan hazi, Lazkao eta Olaberitik bueltan, Beasainen bizi da azken urteetan Maria Agirre Tolosa. Argazkian, seme-alaba, biloba eta birbolekin.

Juan eta Matias Telleria anaiei eta Santi Garmendiari omenaldia

San Isidro egunean, Juan eta Matias Telleria anaiei eta Santi Garmendiari omenaldia egin zioten herritarrek. Juan, elizako kanpai jolea da; Matias elizako erloju zaina; eta Santi Garmendia, elizako organujolea. Herritarrek eskerak eman nahi izan dizkie hainbeste urtean egiten ari diren lanarengatik.



Juan Telleria

40 urte baino gehiago daramazki Juan Telleriak elizako kanpaiak jotzen. Herentziaz iritsi zaio ofizioa. "Orain dela 100 urte baino gehiagotik dator. Nire amaginarreba zenaren aita zenak jotzen zuen, Mendizabal Txiki baserrikoak". Garai batean kanpai gehiago jotzen zen, gaur egun igandeetan bakarrik jotzen den arren: "lehen egunero, goizeko 6etan, 12etan eta iluntzean jotzen ziren kanpaiak. Ostiralean, 3etan jo-

tzen ziren, hiruetakoa. Larunbatetan 2takoa, hurrengo egunean jaia zela adierazteko. Eta jai txikitan, bi kanpai handi jotzen ziren", dio Juanek. Hil kanpaiak, su kanpaiak... horiek ere izaten ziren okasioak hala behartzen zuenean. Bitxikeria bat kontatu digu Juanek: "Abaltzisketa, Orendain eta Balarraingo kanpaien istorioa ere kontatzen da. Abaltzisketak jotzen omen zuen ez-kon-du, ez-kon-du; Orendainek, zeine-kin, zeine-kin; eta Balarrainek dona-do-nakin, dona-kin".



Matias Telleria

Matias ere ez da hasi berria elizako erloju zain lanean. "Lehengo erloju zaharrarekin 20 urte egingo nituen. Berri honek lan gutxiago dauka. Atzeratu edo aurreratu, hor ibiltzen da. Beti kontu eduki behar da", adierazi digu Ma-

tiasek. Lehen elizaren kanpandorreko erlojua herriko bakarra izaten zen eta garrantzia handia izaten zuen. Aurretik eguzki erlojua zegoen.

Garaiak ere aldatu dira erloju munduan. "Aurreko erlojuari 6 egunetik behin ematen nion kuerda. Buelbaka-buelbaka jaso egin behar zen". Bitxikeria bat gogoratu digu Matias: "behin hankan mina hartuta nengoen erlojuari kuerda emateko esan nion apaizari. Inguruko umei esan die eta han dira joan dira denak. Kuerda, aldrebes eman zioten. A ze desastrea egin zuten. Gero nik konpondu behar".

Azkeneko erloju hau modernoagoa. Kuerdarik eman beharrik ez du baina bere lana ere ematen du. "Trumoi joz gero, trabatu egiten da askotan eta kontu egin behar da. Haizearekin ere mugitu egin zaizkio orratzak eta aurreratu egiten da", esan digu Matias. Ordua aldatzen denean ere kontuan hartu behar. "Atzeratu behar izanez gero, ordubetea gelditu behar. Manibuletik atzeratzea ez zaio gustatzen".

Gaur egun, igandeetan, igotzen da kanpandorrera Matias, erlojuari kontu pixka bat egitera. Olia botatzen dio astero.



Santi Garmendia

Elizako organo jolea da Santi Garmendia. 40 bat urte daramatza Santik ere eginkizun honetan. "Juanito Dorronsoro 5 bat urtean apaiz egon zen Gaintzan. Pianoa zeukan apaizetxean eta berak erakutsi zizkidan lehenengo urratsak umetan. Armonium zahar bat bazegoen eta bere alboan hasi nintzen. Seminarioan 7 urte egin nituen eta han jarraitu nituen musika ikasketak. Elizan nahi izaten zuten norbaitek organoa jotzea eta ni hasi nintzen", dio Santik. Aurreko organo jolea Juan Mari Dorronsoro zen. Lehen armonium zahar bat zegoen, hauspoari eman beharrekoa. Gaur egun elektriko dago.

Igandeetako mezatan, hiletetan eta ospakizun berezietan jotzen du Santi Garmendia, ahal duen guztietan behintzat.

Herriari eskertu nahi dio borondaterik onenarekin egindako ekintzatxo hau. Eta ahal duen bitartean, eginkizun horretan jarraituko duela ziurtatu digu Santik.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabean

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



San Fermin zozketa uztailaren 8an

Maiatzean sartzearekin batera salgai jarri ziren Etxezarreta kaleko Txindoki Tabernan San Fermin zozketako boletoak. Herrian hain sona handia duen zozketa 1927an jarri zen martxan eta harrezkero hainbat tabernetako jabeek antolatzekeo ardura hartu eta azkenik 1997an Jesus Mari Altuna, aipatu tabernako nagusiak, bere gain hartu ardura hori eta bere horretan darrai.

Gogoratu beharra dago San Fermin zozketa San Jose Zahar Etxearen alde egiten dela eta zozketaren bitartez ateratzen den diru guztia bertara bideratzen dela. Sari gisa dirua izaten da, makina bat zenbakik jasoko dute gainera

diru kopuru bat. Bitxikeria moduan aipatu orain artean zozketa San Fermin egunean bertan edota bezperan egin izan bada ere, aurtan datok asteburua izanik, astelehenean egingo dela zozketa, uztailaren 8an.

Euroaren etorrerak ere boletoaren salneurrian aldaketak ekarri ditu. Boleto bakoitzak 0,34 euro balio du eta hiru eskuratu nahi dituenak nahikoa izango du euro bat gastatzearekin. Esan bezala, beraz, Txindoki Tabernan San Jose zahar etxearen aldeko San Fermin zozketako boletoak salgai.

Peri arrakastatsua

Aurreko alean azaldu genizuen bezala, asteazkeneroko ohiko periaz gain ostiral arratsaldeetan ere peri izango da herrian. Joaneko ostiralean egin zen lehenbizikoz eta udaletxeoko balorazio ona egin dute, jende dexente hurbildu baitzen eta era berean, saltzaileak pozik geratu zirelako, askori bertaratu-tako produktuak agortu zitzaizkien eta. 20 postu jarri ziren (barazki, gazta, produktu ekologikoak, oreinkiak, loreak...) denak ere kalitatezko produktuak eskainiaz. Harrera ona izan du, beraz, ostiral arratsaldeko peri honek eta antolatzaileek espero dute jendeak erantzun bera ematen jarraituko duela hemendik aurrera ere.

Andoni etxean

8 urte kartzelan eman ondoren aske utzi zuten joaneko apirilaren 24an Andoni Urrestarazu herritarra. 1999tik aske behar zuen arren 3 urte gehiago pasa behar izan du espetxean. Ongi etorri omenaldia apirilaren 27an egin zitzaion eta pixkanaka eguneroko jardunera ohitzen hasia da Andoni.

Aitor Calvillo



Etxeak behera

Ondoren berriak egiteko, noski. Txakurtxuloko lanek aurrera darraitzen heinean, Filipineta kaleko lehen etxea botatzeari ekin diote orain. Josetxo Sport zegoeneko etxea da berau eta zaharra botata berriak egitea izango da hurrengo lana.

Futbol kontuak

Denboraldi hasieran apustu gogorra egin zuen futbol taldeko zuzendaritzak. Preferentera igo berriak alde batetik eta errejionaleko bigarren mailan beste talde bat bestaldetik. Bada ezin hobeto atera zaie apustua, preferentekoek datorren urtean ere maila berean jarraituko baitute eta bigarren taldeak, aldiz, errejionaleko lehen mailara igotzea lortu baitu. Jubenilak ere sailkapeneko goialdean ibili dira denboraldi osoan zehar eta kade-te eta infantilek ere maila ona erakutsi dute. Balantze positiboa inongo ezbairik gabe.

Mailaz igo

Futboleko bigarren taldeaz gain atletismokoek ere igoera lortu dute. Euskadiko bigarren mailan zen orain arte Txindoki Atletismo taldea, baina apirila bukaeran Donostian jokaturako proben ondoren igoera erdietsi du. 20 proba ziren guztira eta horietatik 8tan lehen postua eta 4tan bigarrena lortu zuten. Eñaut Gereñu, Aitor Estala, Adur Ugartemendia, Eneko Barandiaran, Juan Carlos Valdivieso eta abarren markak ere ez ziren nolana-hikoak izan.

Era berean aipatu beharra dago Jon Aranburu eta Anartz Etxeberriak Bostongo maratoin egindako saio bikaina. 181 eta 182garren postuak eskuratu zituzten hurrenez hurren bi ordu eta berrogei minutuko denbora eginaz. Jose Antonio Blanco proba erdia egin zuen eta ordubete eta hamar minutuko denbora egin zuen.

Txapelketa aurrera

Bigarren faseko neurketak amaitu berri direnean XXIII. Lagunarteko Futbol Txapelketako final laurdenak jokatu dituzten taldeak erabaki dira. Tximista, Badago, Urbitarte, Bustunmira eta Vicuña Sport-ek zuzenean sailkatzea lortu dute eta falta diren 3 taldeak Matxain, Ferro, Irrintzi, Usunbilla, Reaggy Boy's eta Wiskas taldeen arteko kanporaketetatik irtenko dira. Finalerdiko partidak ekainaren 29an jokatu dira eta finala uztailaren 7an. Gogoratu neurketok anexon jokatzen direla larunbat arratsalde eta igande goizetan.

Kirola protagonista

Lau txapeletatik hiru

Segurako bolariak, momentuz jokatu diren probintzi mailako lau txapeletatik hiru irabazi dituzte: taldekakoa, bikotekakoa eta banakakoa. Datorrena, lehendakari saria izango dute. Argazkian, Martxeliño Agirre eta Jokin Izagirre Gipuzkoako bikotekako txapelketako sariekkin.



Leire Arrieta Eskolarteko txapeldun

Eskolarteko udaberriko olinpiadetan, Goierri mailako txapeldun geratu zen Leire Arrieta atletismoko 150 metrotako finalako proba irabazi ondoren, pasa den maiatzaren 17an Ordizian, neska benjaminetan. Leirek 10 urte ditu eta pasa den otsailean Idiazabalgo krosa ere irabazi zuen benjaminen mailan.



Futbola

Asteburuko emaitzak: **Regionalak:** Hamaikak bat 1-0 Segura. **Jubenilak:** Segura 4-4 Eibartarrak. **Kadeteak:** Aizkorri 3-3 Ilintxa. **Jubenilak:** Touring 1-0 Aizkorri.

Korpus eguna ekainaren 2an

Goizean, meza eta ondoren korpuseko prozesioa kaleetan zehar. **Arratsaldean,** erraldoi, buruhaundi eta txistulariak. **Ondoren,** ardo partiketa eta herri afaria plazan.

San Joanak

Festa egunak ekainaren 14, 15, 16, 21, 22, 23, 24 eta 25 izango dira. Hurrengo bilera maiatzaren 29an, 19:00etan.

XXVI. Euskal Herriko Dantza Txapelketarako izena emateko epea ekainaren 8 arte dago zabalik. Informazioa eta izen ematea udaletxean edo Dantzarien Biltzarrean. Txapelketa ekainaren 15 eta 16an izango da.

Entsaioak: **Korua:** San Joanetako emanaldirako astearte eta ostegunetan 20:00etan elkartzen dira Kultur etxean. **Danborrada:** 116 haur inguruk parte hartuko dute. Astearteetan (17:00) eta ostegunetan (18:00) baratze pelotalekuan. **Txistularien alardea:** Ekainaren 8an, 20:00etan Kultur etxean.

Futbitoan zazpi koadrila

Zazpi mutil-koadrilen artean (neskarik ez da apuntatu) jokatu da II. San Joan futbito txapelketa, igande goizetan. 'Lanbatero' koadrila da aurtengo nobedadea. Zozketaz bi talde osatu eta baikoitzeko bi koadrila sailkatuko dira finalaurrekoetarako. 'A' taldea: 'Aurrea gorrie', 'Robin Zurrut' eta 'Lanbatero'. 'B' taldea: 'Ostegunean loto', 'Guk asteazkenean', 'Segurs' eta 'DJ'. Ligaska maiatzaren 19an hasi eta maiatzaren 26an, ekainaren 2an eta 9an jokatu dira. Ekainaren 16an finalaurrekoak eta 22an finala.



Finaleko protagonistak udal ordezkari eta laguntzaileekin.

I.go San Ixidro pala txapeldunak

Maiatzaren 15ean jokaturako txapelketaren irabazleak Pello Ormazabal eta Juan Mari Galparsoro izan ziren. Txapeldunorde Xanet Garmendia eta Imanol Intxausti geratu ziren. **Emaitzak:** **Finala:** Pello Ormazabal eta Joan Mari Galparsoro 30 - Xanet Garmendia eta Imanol Intxausti 28. **3. eta 4. postuak:** Josetxo Orrigain eta Egoitz Berasategi 30 - Xabier Etxeberria eta Joseba Etxeberria 20.

Eneko Agirrezabal pista irekian

Ordiziako Txindoki Atletismo taldean dabilen Eneko Agirrezabal Gipuzkoako txapeldunorde geratu da 1500 metrotan jubencil mailan. Euskadiko txapelketan 2000 metro oztopoetan 3. egin zuen, maiatzaren 19an, Gasteizen.

Asteburuan, jubenilek Azpeitin jokatu dute eta kategoriari eusten saiaturiko dira. Gainerakoak denboraldia amaitu dute eta kategoriari eutsi egin diote.

Joseba Telleria

Labur-labur

● **Trinitate kofradia.** Maiatzaren 26ko mezen aurretik eta ondoren, Joakina Alustiza, Axun Gereñu eta Arantxa Aburuza ospitalpean egongo dira kofradekideei urteroko kibraketa egiteko.

● **Idiazabaldarrei harrera.** Maiatzaren 26an San Adriandik erromesaldian datozenei, Malkorre parean harrera egin eta hamaiketako eskainiko die plazan Segurako udalak.

● **Jubilatuaren txangoa.** Maiatzaren 28an, Kastejon, Kaskante eta Tulebraseko monasterio zistertarrera. Irteera, goizeko 8,15etan.

● **Oxiña igerilekuan,** uda partean taberna, sarrera eta aldageletako lanak egiteko 3 lagunetako taldea behar da (herritarrak, euskaldunak eta 18 urtetik gorakoak). Izen ematea ekainaren 10erako udaletxean.



Artzaintzari buruzko ikerketa beka

Zegama, Aizkorri eta Urbiako artzaintza, gaia aztergai izango duen ikerketa beka abian jarri du Zegamako Udalak, joan den maiatzaren 6ko Gobernu Batzordeak harturiko erabakiz. Beka 9.015,18 eurotako izango da.

Beka honen bidez, Zegamako Udalak aspaldidanik beharrezko ikusten zuen ikerketa lana egin dadin beharrezko diren bide eta oinarriak ipini ditu. Zegama eta berarekin batera, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoa,

nahiz Gipuzkoako Partzuergoa eta herri partzeneroetako artzaintza aztergai izango du beka honek, duela hiru urte, San Martin Feriaren bueltan martxan jarritako Aizkorri eta Urbiako Artzainen arteko Gazta -Lehiaketa, ikerketa lan honekin borobilduko da: Ekimen guzti hauekin, azken finean Zegama eta bere inguruko naturaren errespetua eta bere zaintza bultzatu nahi da, bai bertakook gozatu eta kanpotik datozenei gure altxorra eskaintzeko ere.

Tartalo tute txapelketa

Jon den asteburuan, Tartalo Elkartean Tute Txapelketa burutu zen, bertako garaileak Joxe Telleria eta Antonio Oiarbide izan ziren, bigarrenak berriz, Sebastian Alzelai eta Markox Avila.

Tartalon bertso afaria

Maiatzaren 25ean, Tartalo Elkartean, Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsolariekin bertso afaria izango da.

Musika Eskolan matrikulazioa zabalik

Tobera Musika Eskolan 2002/2003 ikasturteko matrikulazioa zabalik dago. Hizkuntza musikala, dantza eta musika tresna ezberdinak ikasteko aukera dute haur, gazte eta helduek. Izena emateko, maiatzaren 27an eta 28an, arratsaldeko 5etatik 7etara Kultur etxera joan besterik ez duzue. Harremanetarako telefonoa zenbakia: 943801570.

Oinarriak

Zegamako Udaletxean daude eskuragarri, besteak beste, Beka hau lortu nahi duenak, ekainaren 30 aurretik Zegamako Udaletxean, aurre agiri bat aurkeztu behar du, non bertan lantzeko asmoa duen lan metodologia aurkeztu beharko duen, era berean

"Curriculum" aurkeztu beharko duelarik.

Epaiahaiak eskaintzarik hoberena aukeratuko du uztailearen 31 aurretik eta lanak 2003ko uztailearen 31 aurretik bukatua izan beharko du. Argibide gehiagorako jo ezazue Udaletxera. 943 801351

Edurne Albizu



Txirrindulari lasterketa

Maiatzaren 25ean, datorren larunbatean, txirrindu lasterketa izango da Itsasondon. Azken urteetan egin ohi duen moduan, Ijitu Kirol elkarteak afizionatu mailako "Itsasondo Saria" antolatu du.

Txirrindularien lana goizeko hamarretan hasiko da eta 112km-ko ibilbidean gogor ibili beharko dute, Altzo eta Larraitzeko gainak igo beharko baitituzte.

Lehenengo postua lortu nahian lehian ibiliko direnen artean bi ijito ere izango dira, bi itsasondoar: Mikel Gaztañaga Caja Rural etxeko txi-

rrindularia eta Zugaitz Ayuso Orbea taldekoa. Herritar nahiz kanpokoek "Itsasondoko Sarian" egindako lana Euskaldun Txapelketarako puntuagarria izango da.

Zine erotikoa

Maiatzeko zine saioak erotismoz jantzi dituzte "Bide On" zine taldeko kideek. Zine taldeak hilero-hilero gai zehatz baten inguruko filmeak hautatu eta herritarren eskura jartzen ditu. Filmeen emandalak gaueko 10etan izan ohi dira Ertotxen eta sarrerak ez du euro bat baino balio.



'Hau paraderoa'

Datorren larunbatean, maiatzaren 25ean, 'Hau Paraderoa' antzezlan izango dugu Ertoetxen gaueko 9,30etan. Elena Irureta, Eli Elizondo, Aitzpea Goenaga eta Loly Astoreka dira antzeslan honetako protagonistak

Herri bertan eta merke zinez gozatu nahi baduzu, badakizu ostiralero emandalak izaten dela Ertoetxen. Aste honetan, maiatzaren 24an "El Imperio de los sentidos", Na-

gisa Oshimak zuzenduriko filmea ikusi ahalko duzu.

*Leire Telleria
Edurne Ayuso*

Zegama Aizkorri maratoia uztailaren 7an

Euskal Herriko mendi maratoietan gogorrena izango da Aizkorrikoa. Uztailaren 7an jokatu den lasterketa hau Zegamako Udala ari da antolatzen Amezti elkartearen laguntzarekin. Bi antolatzaileek jakinarazi dizkigute probaren xehetasunak.

**Juan Inazio Galdos
(Zegamako Alkatea)**

Zergatik antolatu duzue Aizkorriko maratoia?

2000. urtean Aizkorriko Lagunen Elkartea eratu genuen, eta 2000 eta 2001. urteetan Aizkorriko Lagunen Eguna ospatu izan dugu. Esan behar da egun 200 bazkideetik gora daudela elkarte honetan. Honenbestez, Euskadiko Mendi Federazioko Lehendakariak iazko ospakizunean proposatu zigun interesgarria izango zela maratoia antolatzea, Zegama eta bere ingurua ondo prestatzen zirelako honelako froga baterako. Beraz, gure lana izan da aipatutako ideia gorpuztea, garatzea eta Aizkorriko Lagunen Egunarekin txertatzea. Zegama eta Aizkorri uztartu, lotu, identifikatu nahi ditugu.

Zergatik maratoia eta ez mendi ibilaldi neurtua?

Lehen esan dudana moduan, orain dela bi urtetik Aizkorriko Lagunen Eguna antolatu



dugu, eta honen ardatz nagusia Zegamatik Aizkorrikora-ko ibilaldia izaten da. Aurten goan ere honela izango da, eta honenbestez antolatzen den maratoiak ez du albo batera ibilaldia utziko; alderantziz, biak egingo dira. Zentzu honetan azaldu behar da, irudititu zitzaigula maratoiarekin beste egun bat antolatzea baino hobea zela uztailako lehen igandean Aizkorriko Lagunen Egunaren barnean biak ospatzea.

- Berezitasunik izango al du ibilbideak?

- Ibilbidea paraje zoragarrietatik zehar burutuko da. Hiru tontor igoko dituzte: Aratz, Aizkorri eta Aitxuri. Euskadiko Kopako frogen artean gogorrena da, eta esaten digutenez Estatuko frogen artean desnibel handienetakoa du. Beraz, gogortasunaren zaleentzat aukera paregabea izango da Zegama-Aizkorri maratoia. Antolatzen diren beste frogen aldean gogorra da. 5.034 metroko desnibela du. Adibide moduan esan dezaket, Sancti Spiritutik Aizkorrikora bi kilometro eta erdian %20 aldapa izango dute-

la. Gogortasunak froga hau atsegina egiten du korrikalariarentzat. Hau izan zen Euskadiko selekzioako kideen adierazpen bateratua, ibilbidea egin ondoren (zailtasun teknikoa eta gogortasuna).

Urtero egiteko asmoa al duzue?

Zegama-Aizkorri maratoia Euskadiko Koparen barnean sartzen den froga da. Gure asmoak, nahiak eta etorkizuneko jardunak Mendi Federazioarekin batera lotuta egongo dira. Edozein kasutan garbi dago gure intenzioa froga ondo antolatzea eta mendizaleentzat erakargarria izatea dela. Uste dugu aipatutako arrazoiak eragingo dutela froga antolatzearen beharra eta behar bada garrantzi handiagoa hartzen joatea.

Nongo partaideak espero dituzue? Zenbat?

Partaideak Estatu guztitik espero ditugu. Baina esan behar da nagusiki Euskal Herriko korrikalariak parte hartuko dutela. Dagoeneko 80 korrikalari izena emanda eta honi dagokion ordainketa egina daude, eta azpimarratu behar da muga 300 korrikalarietan

jarri dela. Baita ere, esan behar da Estatutik kanpoko korrikalariaren bat ere dagoeneko inskribatua dagoela. Uste dugu 300 laguneko kopurua osatuko dugula, kontuan izanda, oro har, korrikalariak azkeneko egunetan izena ematen dutela, beren prestaketa, eguraldia, eta abar kontuan izanda.

Zein laguntza izan dituzue?

Euskadi eta Gipuzkoako Mendi Federazioaren ezinbesteko laguntzarekin kontatzen dugu. Nola ez, lehen aipatu eta azpimarratu dudana Zegamako Amezti Mendi Elkartearen lana eta ahalegina eta herritar bolondresen laguntza paregabea ere alde ditugu. Baita ere ezin ditzaket ahaztu, hasiera-hasieratik bide lagun ditugun EITB eta 'El Diario Vasco'; beraien aldeotasuna eta esperientzia ezinbestekoak izan dira froga honen sorreran. Nola ez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Departamentuaren laguntza ere oso garrantzitsuak dira, eta baita ere, laguntzaile diren enpresen (Euskadiko Kutxa, CAF, Goierri Beheko Industrialdea, Kutxa). Halaber, 'Eusko Label'-ak emandako laguntza goraipatu nahi nuke, ahaztu gabe, oraindik froga honetan laguntzaile izango diren enpresen ahalegina eta begirunea.

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua eguerdi eta gauetan larunbatetan ere bai	Afariak bataioak jaunartzeak
--	------------------------------------

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Emilio Txurruka (Amezti Mendi Elkartea)

Zer lan ari da egiten Amezti Mendi Elkartea maratoiaren antolaketa?

Aurrena ibilbidea pentsatu, neurtu eta mendi maratoi baten neurrietara egokitu. Denbora fidagarriak jakiteko proba bat egin beharra zegoenez bidea behin behinekotasunez markatu beharra izan dugu.

Horretaz gain honelako konpetizio batek ematen dituen lan guztiak, hala nola: kontrolak, jan-edan hornikuntza, tarteko helmuga, sorrospen zerbitzua, helmugako antolaketa, Arauak, sariak komunikazioak, megafonia eta abar.

Zein izango da zuen lana maratoi egunean bertan?

Bezperan korrikalariei maratoko aurkezpena egin eta jakin beharreko xehetasun ohar eta arauak eman.


Egunean bertan: goizean dorsalak banatu, ibilbide guztiko seinalizazioa begiratu, kontrolak egin, beharrezko diren jan-edan hornikuntzarako postuak jarri eta bete, hiru puntutan denborak hartu, helmugako denborak eta sailkapena egin, bukatzen dutenei sariak eman, eta beste lan bat oso garrantzizkoa jarritako seinalizazio guzti-guztia kendu.

Hitz baten esateko maratoiak eskatzen duen antolaketan on baten lan oso osoa egin.

Zenbat lagun ari zarete lanean?

Amezti Mendi Elkartea nahi-ko txikia da, badiu 71 bazki-

ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA



Datuak

2002ko uztailaren 7an, irteera eta helmuga Zegaman duela, 42,195 kilometro.

Ibilbidea: Zegama-tik abiatuta [296 m.], Otzaurteko mendatera iristen da lehenik [652 m.], ondoren, mendibide eta bidezidorretan gora eta behera, 4 gailur igarotzeko [Aratz - Aizkorri-Aketegi eta Aitzuri]. Oso teknikoa eta zailtasun handikoa. Euskadiko Kopa-rako puntuagarria.

Pasabide kontrolak: 12

Hornimendu-puntuak: 8

Denbora-kontrolguneak: 3 [Aratz - Aizkorri - Aitzuri]

Tarteko helmuga: Aizkorri

Guztirako gora beherak: 5.034 metro.

Punturik altuena: 1.551 m. [Aitzuri]

Punturik behekoena: 296 m. [Zegama]

Ibilgune teknikoaren batz bestekoa: %70 gutxi gora-behera.

Gehieneko denbora: 8 ordu

Errekorrak: Estraineko ekitaldia.

Zailtasuna: Goren.

Partehartzaile kopuruaren muga: 300

Sariak: 2.000 eurotik gora.

Informazioa eta izen ematea:

943 80 13 51 / 943 80 11 15

Kultura.zegama@udal.gipuzkoa.net

de eta eurretatik 34 daude bakarrik federatuak Gida batzordean gaudenok denok gabiltza buru belarri antolaketan lanetan murgildurik baina baditugu laguntzen ari zaizkigun beste dozenardi bat, gutzira 12-13 lagun.

Maratoi egunean zenbat lagun ariko zarete? Herritarren laguntza izango ahal duzue?

120-125 lagun ibiliko gara maratoi egunean detailerik txikiena ere zaindu nahi genuke eta lehenengo proba honetan asko jokatzeko dugu datozen urteetarako, ez dugu

antolaketan aldetik hutsik egin nahi.

Hasieran, pentsatu genuen inguruko Mendi elkartetara zuzendu beharra izango genuela, baina herriko jendearen erantzun ona ikusita, azkenean herriko jendeaz osatu dugu.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



hilean

euro

1

Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

**Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut** ☐

**Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut** ☐

**Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik**

ZINEA

ITSASONDO

Maiatzak 24, 'El imperio de los sentidos'. Ertoetxen. 22:00etan. Ertoetxen.

ORDIZIA

'El rey Escorpion'
Ostirala, 24, 22:15.
Larunbata, 25, 22:15.
Igandea, 26, 16:45, 19:30, 22:15.
Astelehena, 27, 19:30, 22:15.

antzerkia

ITSASONDO:

Maiatzak 25, 'Hau parade-
roa', Ertoetxen, 21:30ean.

OLABERRIA:

Maiatzak 25, Lakrikun tal-
dearen 'Garalderen Re-
quiem-a', pilotalekuan,
gaueko 10etan.

ORDIZIA:

Maiatzak 25, Kafe antzer-
kia: Esther Esparzaren 'Una
pareja ideal', Barrenan,
22:30ean.

Maiatzak 31, Kafe antzer-
kia: Menage a trois taldearen
'Entre actrices' antzezlan,
Barrenan, 22:30ean.

musika

ORDIZIA:

Maiatzak 24, Kafe kon-
tzturtua: Iñaki Salvadorren
'Piano bakarra'. 22:30ean,
Barrenan.

dantzak

BEASAIN:

Maiatzak 30, Carlos Mon-
teroren tango errezitaldia,
Igartza jauregian. Sarrera: 3
euro.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lig-
nae erakusketa, Igartza jaure-
gian.

Ekainaren 7ra arte, Asier La-
razaren argazki erakusketa,
Aterpe tabernan.

Maiatzaren 26ra arte, Ar-
gizpi elkarteak antolaturiko
lehiaketara aurkeztutako ar-
gazkiak, Usurbe antzokian.

**Maiatzaren 31tik ekainaren
9ra arte**, Elena Lusaren mar-
go erkausketa, Usurbe antzo-
kian.

ORDIZIA:

Maiatzaren 24ra arte, Marti-
ne Pinsolle artistaren pintura
erakusketa, Barrenan.

Poltsikoko ikuskizunak Ordizian

Ordizian aurtien ere Poltsikoko ikuskizunak kultur programa
antolatu da. Hona hemen hiru proposamen.

Maiatzak 24, Kafe kontzturtua: Iñaki Salvadorren 'Piano baka-
rra'. 22:30ean, Barrenan.

Maiatzak 25, Kafe antzerkia: Esther Esparzaren 'Una pareja
ideal', Barrenan, 22:30ean.

Maiatzak 31, Kafe antzerkia: Menage a trois taldearen 'Entre
actrices' antzezlan, Barrenan, 22:30ean.

Internetako ikastaroa emakumeentzat

Interneten murgildu nahi duten 30 eta 65 urte bitarteko emaku-
mezko langabeentzako informatika ikastaroa izango da Txin-
doki-Alkartasuna Institutuan. Dohainik da 26 orduko ikastaroa,
ekainaren 3tik 19ra. Izena emateko Gipuzkoako Foru Aldundi-
ra deitu behar da: 900 101 021. Txindoki-Alkartasuna Institu-
tuan ere erreserba liteke lekua: 943 88 07 53 (Xabier Olanoz
galdetu).

Musika eskoletako matrikulazioak zabalik

Tobera Musika Eskola. Zegama, Segura eta Zeraingo Tobera Mu-
sika Eskolak 2002/2003 ikasturterako matrikula zabalik du.
Hizkuntza musikala, dantza eta musika tresna ezberdinak (pia-
noa, akordeoia, txistua, gitarra, trikitixa, panderoa, saxofoia eta
klarinetea) ikas daitezke bertan. Helduek ere badute matrikula-
tzeko aukera. Informazio gehiagorako: 943 801570.

Loinatz Musika Eskola publikoa. Beasaingo Loinatz Musika Esko-
lan izena eman nahi duten ikasle berrientzat matrikula zabalik
dago maiatzaren 31ra arte. Informatika musikala, kantua, ins-
trumentu aukera zabala, gazte eta helduentzako musika len-
goia, 5 eta 6 urteko haurrentzako tailerrak eskaintzen ditu Bea-
saingo Musika Eskolak. Plazan mugatuak direnez, izena ema-
teko ordena errespetatuko da.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Maiatzak 25-26: Jauregi
(Santa Maria, 2- Ordizia). 943 160949.

Ekainak 1-2: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi,
Haritza, Osifia.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan,
Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda,
Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal** go Ahizpak eta
Ormaiztegiko Iñaki Erosle.



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➔ Itsasondon etxebizitza salgai. 943889576.

➔ Ordizian, Urdaneta kalean, pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 943885664.

Mandio inmobiliaria

Laskurain kalea, 3 Tolosa

Telf: 699936801

✓ Ormaiztegi. Billa adosatua berria. Tximeneta, terraza, garajea. Polita.

✓ Idiazabal. Etxebizitza pareatua, garaje eta txokoarekin.

✓ Alegi. Etxebizitza berria. 25 milioi pezetatik.

✓ Gabiria. Baserri berria salgai.

✓ Beasain-Lazkao. Atiko berria salgai, garajearekin. 32.500.000 pezetan.

➔ Etxea salgai Legorretan. 3 logela. Trasteroa. 13 milioi pezeta inguru. 943084189.

➔ Ikaztegiatan 127 m²ko etxebizitza unifamiliarra salgai. Tren geltokitik gertu. Prezio oso interesgarria. 678240829.

➔ Etxebizitza salgai Legazpin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Sukaldean eta komunean obra egina. 686426979. 21:00etatik aurrera deitu.

➔ Etxebizitza salgai Ormaiztegin. 2 logela, egongela, sukaldea jan-tzia. Oso eguzkitsua. Bista onak. 626170647.

errentan hartu

➔ Etxebizitza alokatuko nuke Beasainen. Ekonomikoa. 616730421.

errentan eman

➔ Jacan apartamentua alokatzen da, igerilekuarekin. 943216684.

➔ Iruñean gela bat alokatzen da. Ikasleentzat egokia. 605752095.

Garajeak

salgai

➔ Beasainen lur azpiko 2 garaje salgai, J.M. Iturrioz 7an. 943187424 - 659939779.

Lur sailak

erosi

➔ Goierriin, hektarea 1 eta 2 arteko lur saila erosiko nuke. 943160563.

Pabilioiak

salgai

➔ Itsasondon Ibai-ondo industrialdean 7. pabilioia salgai. 212 m². Altura 9 metro. Prezio interesgarria. 652775737.

Ibilgailuak

salgai

➔ Nissan Banette bat, kanpinerako prestatua, salgai. 943290312 (gauez).

➔ Aprilia scooter SR-50 DI motorra salgai. 615754725.

➔ Renault Espace turbo diesela salgai. Egoera onean. Merke. 657702174.

➔ Golf-II GTI salgai. SS-AC. 300.000 pezetan. 655716395. Gaue-tan deitu.

➔ Citroen Berlingo salgai. 5 urtekoa. 943887246.

➔ Peugeot 205 salgai. 1900 diesela. Txuria. 3 atekoa. SS-AF. 943885024.

➔ Yamaha TZR (50 c.c) motorra salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. 943885147. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Trialeko Beta motorra salgai. 250 cc.

225.000 pezeta - 1.352,27 euro. Ibon. 696420258 - 943889503.

➔ Volkswagen furgoneta salgai. Sukalde, berogailu eta ohearekin ekipatua. 620860285.

➔ Kawasaki GPX 600 motorra salgai. Egoera onean. 1.200 euro. 943766401 - 605712473.


Animaliak

salgai

➔ Pastor Aleman arraza oneko txakurkumeak salgai. Pedegreearekin. 626523064.

➔ Arraza oneko Brako aleman txakurkumeak salgai. 35.000 pezetan. Juantxo. 650183935 - 943881387.

IBAI ONDO



AROZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

IKASTEK

AKADEMIA

2002.eko UDA

Tailerrak: irakurmena, idazmena, matematika

Datorren ikasturterako prestaketa:

- * Euskara, ingelera
- * Fisika, kimika
- * Latina
- * Matematika
- * Testu komentatuak
- * Maila eta gai guztiak

Selektibitate, unibertsitateko prestaketa.

Unibertsitate maila

- * Goierriko unibertsitatea
- * Psikologia, farmazia
- * Enpresaritza
- * Etab.

ikastekakademia@latinmail.com

http://usuarios.tripod.es/ikastek

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5 BEASAIN



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

Bestelakoak

salgai

➔ Super turismo markako 205 x 55 x 16 llantak salgai. Kubieta eta guzti. 943800032.

➔ Marshall '30 aniversario' kitar anplifikagailua (kabezala eta pantaila) oso merke saltzen dut. 160.000 peze-ta. Anpliaren fight case edo funda dohainik. 943884795. Mikel. 17:00etatik 22:00etara deitu.

➔ Mercedes Vita bantentzako 17 "-ko llantak salgai, OZracing etxe-koak. 650966705.

➔ Garbigailua, labadora, salgai. Egoera oso onean. Prezio interesgarria. 661700392.

➔ Gas Gas TXT 321 motorra salgai. 2001. urtekoa. Prezio interesgarria. 669688547.

➔ Sutarako haritz egurra salgai. 2 metrora moztua. Merke. 676882842.

➔ Esolatarako gaztaina txertakak saltzen dira. Merke. 676882842.

➔ Idazteko bi makina salgai, Olivetti Estudio 46 eskuzkoa eta Panasonic R194 elektrikoa. Biak egoera onean eta prezio interesgarrian. 943806176. 21:00etatik aurrera deitu.

➔ 7 oktabadun Furst-stein etxeko pianoa salgai. Neurriak: 1380 x 500 x 1030 mm. 943086610.

➔ Beretta A304 Silver Lark eskopeta salgai. Gutxi erabilia. Ibon. 696420258 - 943889503.

➔ Gurdi-denda erositako genuke, 4 pertsonentzako. 943881978. Eguerdian edo gauean deitu. arrieta@euskalnet.net

Lana

eskaerak

➔ Neska bat behar da erretegi batean larunbata gauetan lan egiteko. 620107400.

➔ 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Lazkaon. 943161019.

➔ Klinika laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikuluma bidali: Eulen fexiplan. Esteban Lasa, 2. Beasain.

➔ Beasainen neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943880845.

erosi

eskaintzak

➔ 23 urteko neska esperimentziduna eskaintzen da, haurrak zain-tzeko edota etxeko lanak egiteko. 652767686

➔ Edozein lanerako mutila eskaintzen da. 943430640 - 639983891.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

INFORMATIKA GESTIOKO PROMOTORA
Tolosan. Erref. 77797/3

BILTEGIZAINA
Tolosan. Erref. 77890/1

ARRAIN SALTZAILEA
Tolosaldean. Erref. 78665/3

SOLDATZAILEA
Beasainen. Erref. 78745/5

5 INKESTATZAILE
Beasainen. Erref. 78898/1

ENKOFRATZAILEA
Donostialdean. Erref. 79676/2

ERAIKUNTZAKO PEOIA
Donostialdean. Erref. 79677/3

➔ 24 urteko neska prest dago arratsaldetan haurrak zaindu eta dendetan lan egiteko. 661700392.

➔ 18 urteko mutil bategi udan lan egingo luke taberna edo jatetxe batean. 651704884 (arratsaldez deitu).

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza



AUSO EGI
Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak





Jaunartzea Idiazabalen, 1967an

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Begoña San Sebastian, Ane Aseginolaza, Eleni Zabala, Sor Dominica, Mari Galarraga, Kontxi Urteaga, M^a Tere Aseginolaza, ezezaguna, Ana M^a Aranburu, Primi Eziolaza, Luxia Urkia, ezezaguna, Maribel Oiarbide, Feli Imaz, M^a Karmen Aseginolaza eta Don Bernabe.

2. ilaran: Don Inazio, Josu Lizarazu, Luis M^a Gonzalez, Aurelio Gonzalez, Francisco Javier Estarbe, Agustin Urteaga, Mariano Martinez, Jose Luis Martinez, Jose Antonio Martinez, Agustin Gonzalez, Jose Luis Mendaza, Mikel Telleria, Luis Egizala, Luis Urteaga, Alberto Aldasoro eta Pedro Elizondo.

3. ilaran: Migel Angel Iparragirre, Julian Elorza, Jabier Elorza, Juan Antonio Contreras, Jose Antonio Saez de Maturana, Jose Luis Munduate, ezezaguna, Juan Carlos Insausti, Guillermo Urrestarazu, Jabier Aranburu, Juanjo Rodriguez eta Jose Luis Mujika.

4. ilaran: Belen Aseginolaza, Pili Elizondo, M^a Jesus Estarbe, Edurne Aranburu, Pili Gonzalez, Mila Izeta, Begoña Oria, Eukene Irizar, Begoña Gorrotxategi, Mertxe Fernandez, Eduarda Jimenez eta Rosa Goñi.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

✓ Aholkularitza
juridikoa
✓ Entrepesa
zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

JOXI iturgintza
Jose Inazio Etxeberria Amuaberrera

GASA - BEROGAILUAK

☎ 943 884 387 Ibarguren baserria
☎ 676 178 488 ZALDIBIA

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:


Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Altamira Auzoa z/g
Tfnoa.: 9438 880 862
Faxe: 943 164 121
012282@hezkuntza.net

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA OIANGUREN BHI

HAUR HEZKUNTZA

(GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA)

Iraupena 20002 ordu (2 ikasaturte)

- Haurren mundura gerturatzen.
- Jolasen bidez ikasten.
- Etorkizunerako prestakuntza ezin hobea jasotzen:
 - Lan mundua: Irakaskuntza, Haurtzaindegia, Ludotekak...
 - Unibertsitatea: Hainbat lizentziatura eta diplomaturako sarbide zuzena.





Goï Mailako Tolosaldea L.H. Institutua



ESKAINITZA AKADEMIKOA

ARAUTUA

Goï mailako zikloak

- Mekanizazio ekoizpena.
- Eraikin eta instalazioen mantenimendu eta muntadura.
- Erregulazioa eta kontrola.
- Sistema informatikoen kudeaketa.
- Administrazioa eta finantzak.

Erdi mailako zikloak

- Mekanizazio teknikaria.
- Galdaragintza eta soldadura.
- Ekipo eta instalazio elektrikoak.

EZ ARAUTUA

- Langileen etengabeko formakuntza.
Kualifikazio Profesional Sistemako Ikastaroak. 35 kurtso azken urtean. Doan.
- Langabetuen formakuntza.
Informatika, automatismo eta soldadura arloak.

Telefonoak:
943 651 147 (Josune)
943 650 664
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com
Webgunea: www.tolosaldea.com

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 1etik 5era bitartean

INSTITUTU HONEN BIDEZ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE

- Iaz Ikasketa Teknikoak amaitu zituzten ikasleetatik %100 jadanik lanean ari dira.
- Lankidetza hitzarmenak 150 enpresekin.

**Ikastetxe honetan kalitatea ez da moda bat,
gauzak hobeki egiteko era baizik**

6 urte ISO 9002 kalitate sistemarekin hobetzen
Urte bat zilarrezko Oreakin garatzen